- Erreserbaren kudeaketa: patronatua, espazio babestu izendatzearen abantailak eta eragozpenak.
- Jar gaitetzen martxan: inguruneke boluntario-lana.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• Biosfera Erreserba (1984) // RAMSAR (1993) // HBGC // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

## ITSASERTZA

### BIZKAIA



#### B•3 Itsasertzeko Punta Galea–Barrika zatia

**B**ilboko portuaren eta Barrikaren artean elkarren ondoan dauden itsaslabar, hondartza eta badiek osatutako kostaldeko zati eder bat zabaltzen da, itsasaldearen gaineko ikuspegi bikainekin.

Urteak dira gune horretako artadiak desagertu zirela, baina harkaitzetan gazitasun—baldintza gogorretara eta itsasoko haizeetara egokitutako flora interesgarri bat dago.

Gaur egun, inguru guztiak gizakiaren presio handia jasaten du, batez ere aisialdiarekin erlazioaturik (golf-zelaiak, hondartzak, urbanizazioak, etab.), baina halere itsasoko hegaztientzako atsedenleku izaten jarraitzen du.



#### B•4 Pobeñako padura eta Arena hondartza

**B**arbadun ibaia Arena hondartzan itsasoratzen da, jalkitze—hareatzetako gune batek eta ur gezak eta gaziak nahasten dituen padura—eremu batek osatutako itsasadar txiki batean.

Hezegune horrek baldintza gazietara egokitutako landaredia espezializatuaren enklabe batzuk ditu oraindik, eta hauek aterpea eskaintzen diete uretako hegazti askori, haien migrazioko eta negupasako geldialdietan.

Enklabe baliagarri hori iraganean padura—eremu garrantzitsua izan zenaren eta orain, petrolio—findegi baten instalazioagatik, erabat hondatuta dagoenaren lekuko da. Espazio horren aberastasun ekologikoak arrisku larrian jarraitzen du faktore askoren ondorioz, komunikazio—bide garrantzitsuek, hondartzarako bisitari asko hartzen dituzten hirigune handiek, industrialdeek, isuriek eta hondakinek inguratzen baitute. Hori guztia dela eta, premiazkoa da gune hori kontserbatu eta leheneratzeko jarduketak abiaraztea.

#### B•5 Itsasertzeko Armintza–Bakio zatia

**A**rmintza eta Bakioaren artean malda handiak dituen itsasertzeko lerroa dago, Jata mendiaren inguruetatik itsasora erortzen diren itsaslabar sakonak dituena. Eremu horretako jatorrizko landaredia ia guztiz

desagertu da eta haren ordez pinuekin eta eukaliptoekin berritu dira basoak. Halere, ibarretan eta sakonuneetan bizirik dirau hasierako basoak eta bertan biltzen dira klima subtropikal batekoak diren eta gure latituedeetan benetako bitxikeria diren garo—mota batzuk.

Itsasoko hegaztiak atseden hartzen dute duela urte batzuk Lemoizeko Zentral Nuklearra hornitzeko eraiki zen urtegi artifizialean; izan ere, zentralaren hondakinak dira gune horretako ingurumenak eta paisaiak jasandako eragin nagusia.



## ITSASERTZA

### BIZKAIA



#### B•6 Plentziako itsasadarra

**B**utroi ibaia aldapa txikiko eremuetatik igarotzen da eta, beraz, mantso mugitzen da bide batez nekazaritza eta abeltzaintzako ibarbide zabal bat marrazten duten meandroak sortuz; ibarbide horretan zenbait enklabek ibaiertzeko jatorrizko basoa mantentzen dute. Ibaia azken zatian, Butroitik Plentzian itsasoratzen den arte, haran ireki eta padura zabal bat eratu ditu.

Gaur egun estuarioa oso aldatuta dago, gizakiaren presioak gune horretan izan duen eragin handia dela eta, baina Txipion oraindik gordetzen dira padurako landarediaren eremu handi batzuk. Edertasun handiko paisaia da, hegazti—kopuru handi batentzat migrazioarako atsedeneku bihurtu dena. Butroiko Gazteluaren eremua eta Plentziako hirigunea dira inguru honetako ondare nagusiak.



#### B•7 Itsasertzeko Gorliz— —Armintza zatia

**K**ostaldeko eremu txiki honetan, Gorlizeko Astondo muturretik Armintzako badiaraino, euskal itsasertzaren adierazgarri diren habitat— eta gorabehera—mota ugari biltzen dira: Gorlizeko dunen gunea, harrigarria bada ere turismoaren eraginetik aske geratu dena, Kantauriko zenbait artadi, inguruko jatorrizko landarediaren lekuko lirakeenak, itsaslabarrak eta itsasertzeko hegalak, berez klima epelagoetan bizi diren garo bitxien multzo bakan batzuekin, Hainbat kala eder, esaterako, Armintzakoa, eta itsasoko zenbait hegaztien hazkuntza—toki den Billanoko uhartea.

#### B•8 Mendexa eta Ondarroaren arteko kostaldeko ibarbideak

**K**ostaldeko zati honek barnean hartzen ditu inguruko errekek hondeatu eta zuzenean itsasora isurtzen dituzten ibarbide batzuk.

Azkar hazten diren espezieek berritutako baso—eremu bat da; horiek gune osoa betetzen dute ibaiertzearaino bertaraino eta, beraz, jatorrizko landaredia urria da. Baldintza gogor horietan bereziki interesgarriak diren klima beroetako garo—populazio batzuk daude. Itsaslabarren lerroan itsasoko hegaztien zenbait kume—kolonia topatu dira eta arroak banatzen dituzten goraguneetan, aldiz, landazabaleko hainbat eremu daude landa—auzoen artean.

## ITSASERTZA

### BIZKAIA



#### B•9 Otoioiko Mendia eta itsaslabarrak

Otoio mendia kostaldearen mugan bertan altxatzen da, Ogellako hondartzaren eta Santa Katalinako lurmuturraren artean, eta tontorretik euskal itsasertzeko zati horren ikuspegi zabala eskaintzen du. Hegoaldeko mendi-hegala leunagoa eta hurbilerrazagoa da eta, horregatik, bertako landaredia anizkunagoa da eta oihaneztatuago dago. Iparraldeko mendi-hegala, aldiz, bat-batean jausten da itsaso gainean, horma malkartsuak eratuz; horietan jatorrizko artadi trinkoaren eremu handi samarrak gordetzen dira, sasi eta zuhaixka ugarietz itxirik. Gune horrek duen arrisku nagusia suteak dira, baina baditu beste batzuk ere Lekeitioko hirigunea oso hurbil dagoelako, esate baterako, zerrategia.



#### B•10 Leako itsasadarra

Leako ibaia Lekeition itsasoratzen da, eta edertasun handiko itsasadar txiki bat osatzen duten meandro motel batzuk eratzen ditu. Bertako lezkadi, lohi eta ihitokietan Lumentxako muinoaren oinaldean elikatzen diren anatido, lertxun eta uretako beste hegazti asko bizi dira. Lumentxako muinoa Lekeitioko hirigunean guztiz sartuta dago ia, baina artadi kantauriarraren lagin on bat gordetzen du. Mari Errotako errota zaharraren presak, antzinako artisau-ontziolek eta Zubieta zubiak osatzen duten multzoak balio historiko eta etnografiko handia du; izan ere, eta duela ez asko nagusiki marinel-eremua zen inguru honetako bizimoduaren lekuko fidagarria da.





## ITSASERTZA

GIPUZKOA G.1

### Inurritza



**Inurritzako ubidearen ibai-ahoa**, Zarautzen, euskal itsasertzeko duna-eremu zabalena eta ondoen kontserbatu dena dago, beste eremu batzuetan hirigintzako eta turismo okupazioak sarraskia egin baitute.

Paisaiaren aldetik oso ederra den itsasertzeko zerrenda txiki honek balio geologiko eta biologiko aipagarri batzuk

biltzen ditu: besteak beste, duna finioen eremuak (gaur egun, golfean aritzeko soropilez estaliak), kosta gaineko itsaslabar malkartsuak eta padura eder bat izan zenaren hondarrak. Harrigarria bada ere, kontserbatu egin den hareatza honetan halako ingurune gazietan bakarrik bizi diren espezieak aurki ditzakegu, batzuk guztiz arraroak.

#### LANERAKO GAIAK

- Paisaiaren interpretazioa: itsaslabarrak, hondartza, padura, hiri-ingurunea.
- Inurritzako ubidea: ekologia eta paduraren eraketa.
- Dunak (duna finkoak-duna mugikorak), hareatzaren birsorkuntza ekologikoa.
- Flora endemikoa: kontzeptua, espezieak, landaredi psamofloa.
- Gaur egun dagoen landaredia eta izan daitekeen landaredia: giza ekintzak landaredia aldatzea.
- Migrazio-hegaztiak: behaketa zuzena (morfologia, elikadura, azturak, etab.).
- Eremu honek jasandako gizakiaren presioa: azpiegiturak, turismo-jarduera, golf-zelaia.
- Ekosistemak dituen arriskuak: kutsadura, uren poluzioa, hondakinak.
- Erabilera tradizionalak: arrantza, ontziolak, minerala kargatzeko tokiak.
- Zarautz herria: alde zaharra, jauregiak eta basilizak.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- Biotopo Babestua (1997) // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).



## ITSASERTZA

GIPUZKOA G.2

### Pagoeta



**Pagoeta Gipuzkoako** itsasertzeko katean kokatuta, Aiako udalerrian, Orio eta Zarauzko kostetatik kilometro gutxira. Parke Naturalak habitat ugari biltzen ditu: mendi-lepoak eta ubideak, hostozabalen basoak eta larre-eremuak. Orientazioen eta lurzoruen dibertsitateak eta itsasotik hain hurbil egoteak aberastasun handiko multzo bat sortu dute.

Mendez mendez gizakiak esku hartu du, eta multzo horretan zelaiak, landazabalak eta zuhaitz-sailak sortuz, paisaia modelatu du.

Gizakiak eragindako presioa eskasa izateari eta jabetza osoa esku publikoetara pasatu izanari esker, enklabe honek bere aberastasuna eta inguruneen dibertsitatea kontserbatu du.

### LANERAKO GAIK

- Pagoetako egitura geologikoa: "Euskal arku tolestua".
- Pagoetako basoak: pagadia, hariztia, ibaiertzeko basoa.
- Arbola Berezia. Pagoetako hagina: ezaugarriak, espezie honi loturiko erabilera eta tradizioak, babesteko arrazoiak.
- Oreinak Pagoetan: habitat jakin batean espezie bat berriro sartzearen adibideak, morfologia, elikadura, azturak.
- Landazabal atlantikoa: baserria eta honen ingurunea.
- Erlatoki didaktikoa: ezaugarriak, azturak, erabilera, erleen produktuak.
- Pagoetako mendien baso-ustiapena: garrantzi historikoa, zuraren erabilerak, basoen atzerakada, baso-sailak.
- Iturrarango Lorategi Botanikoa (arboreso-frutizetosa): espezieen identifikazioa.
- Espazio babestu baten kudeaketa eta plangintza: araudia, antolamendu-planak, patronatua. Naturagune babestu izendatzeak dituen abantailak eta eragozpenak.
- Landa-industriak, burdinolak eta errotak: Agorregiko burdinola.
- Etnografia: Iturrarango erakusketak etnografikoa.
- Erabilera tradizionalak: elurtegiak eta karegileak.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• Parke Naturala (1998) // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).



## ITSASERTZA

GIPUZKOA G.3

Ulia



**Ulia mendia**, Ategorrieta eta Gros auzoen gainean kokatua, Donostiako mendi sinbolikoetako bat da. Itsasoari begira dagoen gunek orografia malkartsua du oso, eta bertako talaiatik itsasoaren indar gogorraren eraginpean dauden itsaslabar bertikal aldapatsuek, muturrek eta badiiek osatutako paisaia ikusgarriaz goza daiteke.

Egoera zail horretan gazitasunari eta etengabeko hai-

zeari egokitu zaizkien landare-komunitate batzuk bizi dira. Eredu honetan, gainera, itsasoko hegaztien koloniak daude; besteak beste, bereziki interesagarriak dira ekaitz-txoria eta belatz handia.

Etengabeko suteek eta eremu honetan isurtzen duen Urumea ibaiko hodi biltzaileak eragin handia dute inguru eder honetan.

### LANERAKO GAIAK



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

- Itsaslabarren jatorri geologikoa: abrasio-plataformaren kontzeptua.
- Paisaiaren interpretazioa: itsaslabarrak, itsasoa, hiri-ingurunea.
- Uraren eta itsasoaren zikloa: ur gezak eta ur gaziak, olatuen eraketa, mareak.
- **Armeria euskadiensis**: euskal kostaldeko endemismo arraroa.
- Itsasoko hegaztiak: behaketa zuzena (morfologia, elikadura, azturak, etab.).
- Itsas ingurunea: ozeanoak eta kostaldeak jasandako eraginak, ondorioak, izan daitezkeen irtenbideak.
- Gune honek jasandako eraginak: isuriak eta suteak. Ekosistema leheneratzeko proposamenak.
- Uliako tranbia eta teleferiko turistikoa: Donostiako lehen turistak.
- Kultura-ondarea: baleontzien talaiaren hondakinak, haize-errota, gotorleku militarrik.
- Familia bakarreko arkitektura: estilo erromantiko eta neoeuskalduneko txaleta.

## ITSASERTZA

GIPUZKOA G.4

### Jaizkibel



**Jaizkibelgo itsaslabar altuak** Bizkaiko Golkoaren eta Gipuzkoako bailaren behatoki natural pribilegiatua dira. Hemendik, gainera, itsasoko hegaztien ikuskizuna miretsi ahal izango dugu haien migrazio-ibildideetan.

Neurririk gabeko artzaintzak eta etengabeko suteek inguru honetako landaredi-estalkia deforestatu dute, baina

enklabe batzuetan, sakan, ibarbide eta itsaslabarren hondoan ezkutaturik, interes botaniko handiko hainbat espeziek aterpea du. Gune honetan ugaria da fauna interesgarria, eta azpimarratzekoak dira itsasoko hegaztien koloniak eta Schreiber muskerra eta suge berde-horia, oso arraroa baita bi horiek hemen egotea.

#### LANERAKO GAIAK

- Geologia: "Jaizkibel formazioa", itsaslabarrak, geruzak eta erliebeak.
- Paisaiaren interpretazioa: antenak, hiriguneak, itsaslabarrak, larre-eremu, ibaiak, bide-azpiegiturak.
- *Armeria euskadiensis*: euskal kostaldeko endemismo arraroa.
- Gaur egun dagoen landaredia eta izan daitekeen landaredia: giza jardueraren ondorioz aldatutako landaredia, gune honetako suteen kausak, leheneratzeko proposamenak.
- Itsasoko hegaztiak: behaketa zuzena (morfologia, elikadura, azturak, etab.).
- Itsas ingurunea: ozeanoak eta kostaldeak jasandako eraginak.
- Inguruneak jasandako gizakiaren presioa: urbanizatutako eremuak, espazioaren iraganeko erabilerak eta egungoak.
- Gune honek jasandako eraginak: erabilera militarrik, azpiegitura berrien proiektuak (Jaizkibelgo superportua, errepideak, etab.).
- Historia eta kultura-elementuak: Galabursa eta San Erikeriko gotorlekuen hondakinak, monumentu megalitikoak.
- Arkitektura-ondarea: Pasai Donibane, Hondarribia.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).



## ITSASERTZA

GIPUZKOA G.5

# Txingudi (Bidasoa ibaiaren estuarioa)



**Irungo, Hondarribiko eta Hendaiaiko** inguruetan kokatzen da Bidasoa ibai—ahoak eraturako badia. Gizakiaren eragin handia jasan duen gune honek aparteko garrantzia duten zenbait enklabe kontserbatzen ditu oraindik.

Padura hauetan biltzen da euskal kostaldeko hegaztien

dibertsitate handiena; izan ere, haien migrazioko eta negupasako ibilbideetan itsasoaren eta Pirinioen artean kokaturiko eremu estrategiko honetan lehorreratzen dira. Bidasoa, gainera, gure autonomia—erkidegoan dagoen izokin—enklabe bakarra da.

### LANERAKO GAIK

- Geografia: kokapena, hiriguneak, padura, ibaia, itsasoa.
- Txingudiko ekosistemak.
- Txingudiko paduren bilakaera historikoa.
- Paduraren eraketa geologikoa eta eboluzioa.
- Padurako ekosistema: hezeguneetako biodibertsitatea.
- Hegaztien migrazioa eta hegaztien behaketa (morfologia, elikadura, azturak).
- Bidasoako uharteak: degradazio—prozesuak eta habitatetako ingurumenaren leheneratzea.
- Gaur egun dagoen landaredia eta izan daitekeen landaredia: paduretako paisaiaren aldaketa. Leheneratze—prozesuak.
- Uren kutsadura. Eragileak, izan daitezkeen irtenbideak.
- Elementu etnografikoak: gabarrak, lezoiak.
- Espazioaren kudeaketa. Jabe pribatuak eta publikoak. Baimendutako erabilerak eta erabilera debekatuak. Dagoen araudia.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• RAMSAR (2002) // HBGB // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

## ITSASERTZA

### GIPUZKOA



### G•6 Mutriku— —Saturrarango itsaslabarrak

**I**tsaso gainean aldapa izugarria duten itsaslabarren zerrenda bat da eta paisaia guztiz malkartsua osatzen du. Itsasbeheran, itsasoaren higadurak eraturako abrasio—plataforma zabala, edertasun handikoa, ikus dezakegu.

Itsaslabar hauetara iristea zaila da eta, beraz, aterpe egokia eskaintzen diete itsasoko hegaztiei, koloniak osatzeko toki babestuak behar baitituzte.

Saturrarango hondartza jendetsua hain hurbil egon arren, hasiera batean behintzat ez da arrisksua enklabearentzat, lurrazen ezaugarriak kontuan hartzen baditugu.



### G•7 Zumaiako itsasadarra eta hareatza

**U**rola ibaiak bere ibai—ahorantz doan azken zatian dibertsitate handiko eta paisaiaren aldetik kalitate oneko zenbait padura—enklabe zeharkatzen ditu.

Mareen gorabeheren menpe dagoen gune hori Santiago hondartza aurreko dunetan hasten da eta limoz eta hareaz betetako eremu lau batean jarraitzen du. Aurrerago, itsasadarrak meandro leun bat marrazten du. Hemen ibaiertz batean hegala aldapatsu bat topatzen du, jatorrizko artadiak estalita, eta beste ibaiertzean, neurri batean industrialde batek okupaturako ibar—eremu bat. Azken herenean padurako landarediak estalitako bi uhartetxo sedimentario urgaineratzen dira; bertan espezie ugarietako hegazti—kopuru handi bat biltzen da, eta azpimarratzekoa da limoetako espezieen barietatea.

Area horrek guztiak hiri—eragin handia jasaten du eta, ondorioz, enklabe berezi horren kontserbazioa arriskuan dago.

### G•8 Itsasertzeko Aitzuri muturra (Mendata)— —Zumaia zatia

**I**tsasertzeko gune honek aparteko interes geologikoa du: aldapa pikoak eta gorabehera handiko muturrak dituen itsaslabar—eremu bat da. Erdian

badia luze bat du, Aitzurin, eta horrek abrasio—plataforma ikusgarri bat erakusten du itsasbehera denean. Haren gainean, ia bertikalki, kolore zurixka eta arrosako geruza finak altxatzen dira, paisaia ikusgarria eratuz.

Toki ezin hobea da prozesu geologikoak eta itsasoko flora eta fauna aztertzeko.



## ITSASERTZA

### GIPUZKOA



### G•9 Getariako San Anton

**G**etariako San Anton (edo "Getariako Arratoia") Euskal Herriko itsasertzeko enklabe ezagunenetariko bat da: mendi-hegal malkartsuko haitz bat da eta tontoretik kostaldearen zati luze bat ikusten da. Mendi-mazelaren goialdea leunagoa da eta funtsean apaingarria den zuhaitzi batek estaltzen du, baina itsaslabarren eremuak haitzak bereizgarri duen landaredia kontserbatzen du; esate baterako, hain urria den *Armeria euskadiensis* endemismo arraroa.

Tokiko biztanleentzat eta arrantzale-herri honetara hurbiltzen den turismoarentzat eremu honek aisialdirako erabilera du nagusiki. Iparraldeko muturrean Getariako itsasargia dago.



### G•10 Mendizorrotzeko sakanak

**K**atalogatu den guneak barnean hartzen ditu bi erreka txikiren (Arkumetegi eta Egiluze) ibarbideak, eta horiek inguratzen dituzten lurrak, Agitiko kalaren mugetaraino. Ubide estuak aldapa gogorrean jaisten dira hurbil dagoen itsasorantz, suteen eta neurririk gabeko artzaintzaren ondorioz jatorrizko landarediak osatutako estalkia galdu duen ingurune batean.

Arkumetegik gure kontinentean urriak diren landaredi termofloaren hondar interesgarri batzuk kontserbatu ditu. Halaber baliagarriak dira oso inguruko esfagnalak eta hezegune txikiak; horietan *Hyla meridionalis* delakoa, giro mediterraneoko anfibio oso arraroa, aurkituko dugu gure autonomia-erkidegoan ikus daitekeen toki bakarrean.

Ekosistema ahul horien biziraupena eremu horren babes egokiaren menpe dago, hurbileko hiri-eremuaren aisialdirako erabiltzen baita. Gipuzkoa

## HARAN ATLANTIKOAK

### BIZKAIA



#### B•11 “Río Mayor” ibaia— —“Las Tobas”—Akirtza

**A**kirtza, Las Tobas eta “Río Mayor” errekek aldapa handiko sakan estuen eremu bat zeharkatzen dute Trianoko mendien inguruan. Paisaia oso aldatuta dago; izan ere, mendi horiek Bizkaiko meatzaritzaren sorleku izan ziren, eta jarduera horrek eragin handia izan zuen ingurumenean, paisaia argi eta garbi ikus daitekeenez.

Espazio horretan gizakiak eragin duen eraldakuntza eta abiarazi diren leheneratze—prozesuak Peñas Negraseko Ingurumen Interpretazioko Zentroan azter daitezke.

Sakan—hondo babestuetan mikroklima itzaltsua, beroa eta hezea sortzen da eta gure latitudeetan benetan bakarrak diren garo subtropikalen espezie batzuk garatzen dira.



#### B•12 Nerbioi ibaiaren ezker aldeko kostaldeko mendiak eta muinoak

**E**spazio honen katalogazioa beharrezkoa da, alde batetik naturari eta paisaiari dagokienez dituen balioengatik eta, bestetik, inguruaren kontserbazioa eta leheneratzea sustatzeko premiarengatik, gizakiaren presentzia handia duen eta eragin urbanistiko garrantzitsuak jasaten dituen gunea baita. Itsasertzeko lerroan bertan kokaturiko mendi txikien multzo honek (Lucero muturra, Serantes, San Mames) jatorrizko landare—estalkirik ez du ia kontserbatzen, artzaintzaren, industria—jardueraren, obra publikoen eta inguruko aisialdiko jardueraren (Arena hondartza) eraginez.

Hala eta guztiz ere, eremu horrek flora eta faunako komunitate garrantzitsu bat mantentzen du. Komuniate hori bereziki interesgarria da bertan bizi diren Mediterraneo espezieengatik, esate baterako, gure Erkidegoko Kantauriko isurialdean dagoen abarizti bakarra edo soro—muxarra.

#### B•13 Sollube—Garbolako sakanak

**D**uela zenbait mendetatik Sollube eta Garbolako mendiak biziki ustiatu dituzte inguruko landa—guneetako abeltzainek, larre—eremu gisa. Azken hamarkadetan zelaiak oihaneztatu egin dira

berrito eta, beraz, gaur egun hazkuntza azkarreko baso—espezieek betetzen dute ia azalera guztia, itsasorantz doazen erreka eta uhar ugarietaraino bertaraino iritsiz. Ibarbide hauek babestea oso garrantzitsua da, jatorrizko floraren azken aleak gordetzen baitituzte, bereziki glaziar aurreko garaien lekuko direnak eta klima beroei dagozkienak.



## HARAN ATLANTIKOAK

### GIPUZKOA G•11 Arno



**Arno mendiek** kostaldetik oso hurbil, Mutriku eta Deba artean, zabaltzen den harkaitz-arku bat osatzen dute. Altuera txikiko mendigune bat da, baina inguruko mendietatik bereizten duen profil berezia du; hori dela eta, bere tontorra "Bandera (ikurrina)" izenez ezagutzen da, hemendik seinaleak bidaltzen baitzitzaizkien kostaldetik hurbil zeuden ontziei.

Kareharrizko mendi-hegalek garaiera handiak dituzte, eta artadi kantauriarrak estaltzen ditu guztiz; hain zuzen, inguru epeletako bereizgarri den baso honek iparraldeko eremuaren zati handi bat estaltzen zuen glaziazioen aurretik. Ormodun-espezie askok aprobetxatzen dituzte baso hauetako babesa eta elikagaiak.

### LANERAKO GAIAK

- Euskal Herriko geografia: kokapena, lurraldeen mugak, eskualdeen mugak.
- Paisaia karstikoaren adibide bat: Olatzeko poljea.
- Artadi kantauriarreko flora eta fauna: baso honek lurra mantentzeko duen garrantzia.
- Basurdea: (ezaugarriak, azturak), ugaritu izanaren arazoak, sortutako arazoak, izan daitezkeen irtenbideak.
- Erabilera tradizionalak Arnon: artadia eta ikazkintza.
- Benetako betizuak: inguruko abeltzaintza tradizionala. Euskal Herriko arraza autoktonoak.
- Ekosistemak dituen arriskuak: suteak, neurririk gabeko artzaintza, baso-sailak.
- Ondarea: Mutriku eta Deba, historia, ondarea, arrantza-tradizioa.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).



## HARAN ATLANTIKOAK

### GIPUZKOA G.12 Oria ibaia



**Oria ibaia Gipuzkoako ibaien artean** arro handiena duena da, Aizkorriko mendilerroan sortu eta Orion itsasoratzen da, padura bat eratuz. Euskal Herriko ibai gehienak bezala, Oria ibaiaren egoera ona da goi-ibairean eta herri garrantzitsu eta industrializatuenetan daude ibai-zati degradatuenak. Aztertu beharreko espazioak ibai-zati txiki bat hartzen du barnean, jaiotzen denetik Segurako hiriguneraino. Zati honetan ibaiak berritutako baso-eremuak, haltzadiak eta Atlantikoko landazabaleko eremuak zeharkatzen ditu, baserri eta

zelaien artean. Ubide estu eta ur-emari eskaseko zati hauetan, ibaiertzeko sasien babesean, aterpea aurkitzen dute uretako hegaztiak, amuarrainek eta bisoi europar bakanak.

Usurbildik Oriorainoko azken zatian, ibaiak estuario garrantzitsu bat eratzen du. Garai batean askoz ere zabalago zen, baina gaur egun oraindik ere badira balio ekologiko handiko padura batzuk, eta horiek ingurune gazi horietako berezko landaredi-komunitate batzuk eta uretako hegazi-fauna ugaria kontserbatzen dituzte.

### LANERAKO GAIK

- Arro hidrografikoa: ibaien ekintzak modelatutako paisaia.
- Ibaiko ekosistema: urari loturiko flora eta fauna.
- Uren kalitatea: goiko ur-lasterraren eta beheko ur-lasterraren arteko konparaketa.
- Euskal Herrian arriskuan dagoen fauna: bisoi europarraren adibidea.
- Atlantikoko landazabala: baserria eta honen ingurunea.
- Ekosistemaren gaineko eraginak: isurketak, nekazaritza eta abeltzaintza, hondakinak.
- Kontsumoa: uraren kudeaketa egungo gizartean, kontsumoaren murrizketa, erabilerak eta gehiegizko erabilerak.
- Industria-garapena: inguruko ekonomia-jarduerak, ibaiak jasandako eraginak.
- Garapen jasangarria: zein baliabide erabil ditzakegu ibaiari kalterik eragin gabe?
- Zegamako landa-gunea: historia, arkitektura eta landa-ondarea.




FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- IKT (Interes Komunitarioko Tokien, Aizkorri-Segura zatia).



## HARAN ATLANTIKOAK

### GIPUZKOA G.13 Leitzarán ibai



**Leitzarán ibaiak haran itxi** eta sakon bat zeharkatzen du, ondo kontserbatutako ibaiertzeko baso batean ibilbide bihurria eginez. Baso horretan, Euskal Herrian oso arraroak diren espezieak bizi dira, esate baterako: uhandre piriniarra, muturluze piriniarra eta bisoi europarra. Bertan, ur-ingurunera bakarrik egokitutako hegaztiak egoteak, adibidez ur-zozoa eta martin arran-

tzalea, uren kalitate ona adierazten du. Ibaiak igarotzen duen malda handia tradizionalki presak, erretenak eta burdinola txikiak instalatzeko aprobetxatu da. Haranaren erdi-erditik igarotzen zen Nafarroarako antzinako trenbidea burdinbide berde bilakatu da eta hor enklabe horren balio ekologiko handiaz gozatzeko aukera eskaintzen zaigu.

### LANERAKO GAIK

- Arro hidrografikoa: ibaien ekintzak modelatutako paisaia.
- Ibaiko ekosistema: urari loturiko flora eta fauna.
- Uren kalitatea: goiko ur—lasterraren eta beheko ur—lasterraren arteko konparaketa.
- Uraren energia aprobetxatzea: presak, erretenak eta burdinolak.
- Arriskuan dagoen Euskal Herriko fauna: muturluze piriniarra.
- Aisialdiko erabilerak: arrantza, jarduera horren arautzea.
- Arriskuan dagoen fauna suspertzea. Izokina suspertzeko programa.
- Hezeguneak eta zohikaztegiak: enklabe horien garrantzia, flora eta fauna.
- Espazioaren segurtasunerako arriskuak: isuria etetea, isurketak, uhertzea, gizakiaren presentzia.
- Baso—ustiapenak: koniferoen landaketa, ingurunean duen eragina.
- Antzinako komunikazio—bideak: Plazaolako trenbidea.
- Erabilera tradizionalak: kontrabandistak, artzainak eta ikazkinak.
- Leitzarango autobia: azpiegitura handi horren historia, eskualdeko ingurumenean izan duen eragina.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• Biotopo Babestua (1995) // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

## HARAN ATLANTIKOAK

### GIPUZKOA



### G•14 Haranerreka

**G**ipuzkoako orografia zaila Haranerrekako labirintora iristen da. Kobazulo eta leizez beteriko mendi—mazela malkartsuz inguratuta dagoen harana mehartu horretako hondo estutik Kilimon ibaiara igarotzen da. Inguru horretan denbora gelditu egin dela dirudi, jatorrizko landaredia eta bertako habitata ia ukitu gabe kontserbatzen baitira: gailurretako harkaitzak, mendi—hegaletako artadia, era askotako hostozabalez osatutako baso mistoa haran—hondoko ibarbideetan, haraneko baserri bakanei loturiko landazabalarekin batera.

Ingurune hori hain gutxi aldatuenez, Haranerreka, Izarraitz eta Andutzekin batera, Gipuzkoako eremu interesgarrietako bat da faunaren aldetik.



### G•15 Andutz mendia

**A**ndutz mendiaren kareharrizko gailurra nabarmendu egiten da Debako paisaian, eta Deba eta Urola ibaien arreo arteko banalerro geografikoa eratzen du, komunikazio—bide eta azpiegitura garrantzitsuz inguratutik. Andutzeko mendi—hegalak, bereziki ekialdekoak, artadi kantauriar handi batek estaltzen ditu. Hori da, hain zuzen, gune horretako jatorrizko landaredia eta garrantzitsua da kareharrizko lurra babesteko. Era horretako basoak sasi—barietate handi batekin eta harkaitzetako flora oso bereizgarri batekin lagundurik kontserbatzen dira. Oihanpean baso—fauna aberatsa bizi da: basurdea, ipurtatsa, lepezuria eta azkonarra; eta bertako enklabe heze ugarietan maiz ikus daitezke anfibioak; adibidez, baso—igel gorria eta uhandre marmolairea.

### G•16 Garate—“Santa Bárbara”

**A**rtelatza Mediterraneoko berezko zuhaitza da, baina harrigarria bada ere, inguru honetan espezie horretako hainbat ale daude, bakarka nahiz pinuz, txakolin—sailez eta zelaiz inguratutako zuhaitzi txikietan

bildurik, Meagatik Garate Gaineraino. Zarauzko Vista Alegre auzoan bertan ere artelatza heldu espontaneo batzuk aurki ditzakegu. Ale horiek bakarrak dira gure autonomia—erkidegoan eta, beraz, klima epelagoko beste garai batzuen lekuko biziak ditugu. Ale horien berezitasuna eta suteen eta kontrolrik gabeko baso—berritzeen ondorioz desagertzeko benetako arriskuan direla—eta, multzo osoa eta bereziki bat babestu dira EAEko Arbola Berezi izendatuz.



## HARAN ATLANTIKOAK


### GIPUZKOA



### G•17 Aginagako urmaela

**O**ria ibaiaren bokale inguruetan lurzoruaren sakonune batek babestutako ur-lamina txiki bat dago; sakonune hori dela-eta, ezin da ikusi handik hurbil dagoen autobidetik. Gaur egun ia erabili ere egiten ez den urmael horrek antzina sakonune hori guztia estali zuen ibaiertzeko basoaren zati bat kontserbatzen du.

Ertzetako landaredi ugaria zenbait anfibio eta uretako hegaztiren bizitokia da. Espezie horientzat funtsezkoa da halako eremu hezeak izatea. Dena den bertan bizi diren aleen kopurua txikia da nahitaez, uren azalera mugatua delako.



### G•18 Atxulondo-Abaloz

**A**balozeko errekek haran estu bat zeharkatzen du Oria ibairantz egiten duen bidean. Ingurune horretan basoa nagusitzen da, batez ere konifera-sailak, baina Abalozeko basoak eta ubideak Kantauriko ekosistemak berez duen landaredia kontserbatzen dute eta bertan honako hauek daude: harizti batek eta ibaiertzeko baso batek osatutako multzoa, jatorrizko floraren geruza desberdinetako zuhaitzi, heskai eta loreekin.

Oso ondo kontserbatuta dagoenez, arrain, anfibio eta ugaztun ugari ditu; azpimarratzekoak dira horien artean bisoi europarra eta lepahoria, benetan urria dena.

Inguruetan industrian erabiltzeko ura hartzen denez, ibaiaren ur-emia arriskuan dago, batez ere urtaro lehorretan, eta, ondorioz, uretako faunaren biziraupena ere arriskuan dago.

## IPARRALDEKO MENDIAK

BIZKAIA

B•14

# Ranero—Los Jorrios mendiak



**Mendigune malkartsu hau** nabarmen geratzen da Karrantza Haraneko eta Trucios—Turtziozoko landazabaleko paisaian. Kanpoaldean natura karstiko zartatua antzematen badugu ere, barnealdean nabarmen geratzen da leize, arraila eta kobazuloen arteko labirintoan. Multzo horren punturik gorena Pozalaguako kobazulo ikusgarria da. Leize horrek estalaktita eszentriko bitxiak eta Karlistaren torka delakoa, munduan ezagutzen den barrunbe handienetariko bat, ditu.

Ingurune aldapatsu hori inguratzen duen paisaia landa-  
rediak eratutako tapiz leun bat da, gizakiak belaunaldiz be-  
launaldi bazkaleku gisa erabiliz modelatu duena; izan ere,  
abeltzaintza—jarduerari dagokionez, Euskal Herriko eskualde  
nagusienetako batean gaude. Gizakiaren eragin handia ja-  
san duen paisaia horretan bertako hostozabalez osatutako  
zati garrantzitsuak kontserbatzen dira, esate baterako Sope-  
ñako artadia, faunaren aldetik oso aberatsa dena.

### LANERAKO GAIAK

- Euskal Herriko geografia: kokapena, lurraldeen mugak, Enkarterriak.
- Geomorfologia karstikoa. Pozalaguako kobazuloak (historia, ezaugarriak, estalaktita eszentrikoak). Karlistaren torka (historia, neurriak).
- Karrantzako paisaia: sakabanatutako gunek (auzoak), larrea, basoa, harkaitzak.
- Kobazuloetako biztanlea: saguzarrak (morfologia, espezieak, azturak).
- Sopeñako artadia: mikroklima, ezaugarriak, berezitasunak, lekuari loturiko flora eta fauna, artadiaren ustiapen tradizionalak.
- Etxe—abereen arraza autoktonoak Enkarterrietan: Karrantzako ardi autoktonoa.
- Korridore biologikoak: kontzeptua, Ranerok korridore biologiko gisa duen garrantzia.
- Gizakiaren jarduerak haranean modelatu duen paisaia: abeltzaintza, esne—behia.
- Landa—ingurune bizimodua gaur egun: ustiapenen oraina eta etorkizuna.
- Ekosistemak dituen arriskuak: goi—tentsioko lineak, abeltzaintza intentsiboa.
- Gizakia inguru honetan: monumentu megalitikoak, Benta Laperrako kobazuloak.
- Landa—ondarea: Enkarterrietako baserrien tipologia.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- Parke Natural izendatzeko izapidea bideratuta dago.
- IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).



## IPARRALDEKO MENDIAK

BIZKAIA

B.15

Ordunte



**Mendigune hau** profil biribilduko hainbat goragunek osatzen dute. Tontorretako landare—estalkia deforestaturik dago neurri handi batean, historiaurreko garaietatik eremu honetan izan den eta paisaia sasiz eta larrez bete arte modelatu duen artzaintza estentsiboaren ondorioz. Ingurune hori nahiko aldatuta egon arren, oraindik ere badira pagadi- eta

amezti—eremu handi samarrak, antzinako garaietan gune hori estaltzen zutenen hondarrak. Gainera, helezinak diren zenbait enklabek fauna interesgarria gordetzen dute, gure autonomia—erkidegoan oso arraroak diren espezie batzuekin: erbinude zuria, lephoria eta orkatza. Inguru horietan sai arreek hegan egiten dute, eta Peñaltan elikatzen dira.

### LANERAKO GAIAK



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

- Euskal Herriko geografia: kokapena, lurraldeen mugak, Enkarterriak.
- Karrantzako paisaia: sakabanatutako guneak (auzoak), larrea, basoa, harkaitzak.
- Sarraskijale handiak: putreen kolonien haztegiak.
- Gizakiaren jarduerak modelatutako paisaia. Abeltzaintza estentsiboa.
- Antzinatek jasagarria den abeltzaintza: behi montxina, Karrantzako ardia eta zakur bilaua. Euskal Herriko etxe—abereen arraza autoktonoak. Kontserbatzeko dituzten arriskuak eta leheneratzeko estrategiak.
- Korridore biologikoak: kontzeptua, Orduntek korridore biologiko gisa duen garrantzia.
- Landa—ingurune bizimodua: landa—guneen oraina eta etorkizuna.



## IPARRALDEKO MENDIAK

### BIZKAIA B.16 Gorbeia



**Gorbeia mendigunea euskal geografiko** eremu menditsu garrantzitsuenetako bat da, eta oso adierazgarria da ekologiaren eta paisaiaren aldetik. Atlantikoko eta Mediterraneoeko isurialdeen banalerroari dagokio; iparraldera sakan malkartsuak ditu eta hegoaldera, berriz, aldapa leuneko haran zabalak. Enklabe honen balio garrantzitsuenen artean daude hostozabalez, harkaitzez eta kareharrizko paisaiez osatutako basoak, enklabe hezeak

eta ur-lasterrak. Fauna ere aberatsa da oso: martin arrantzalea, basurdea, arrano txikia, sai zuria, aztore arrunta, muxar grisa, lepahoria, basakaturia, igaraba, etab.; hain ere, 60ko hamarkadan berriz ekarritako oreinak dira gune honetako protagonista nagusiak. Aberastasun naturalaz gain, Gorbeia leku sinbolikoa da bertako elezahar eta tradizioengatik eta euskal mendizaletasunaren erreferentzia-puntu delako.

### LANERAKO GAIAK

- Euskal Herriko Geografia: kokapena, probintzien mugak. Kantauriko eta Mediterraneoeko isurialdeen banalerroa.
- Gorbeia paisaia: paisaia naturala eta gizakiaren ekintzek modelatutako paisaia (artxaintza).
- Saldropoko hezegunea: eremu hezeen garrantzia. Habitat baten gehiegizko ustiapena. Leheneratze-prozesuaren balorazioa.
- Itxina eta karst-a: higadurak eragindako sistema geologikoa. Biotopo Babestua (1995).
- Oreinak Gorbeian: habitat jakin batean espezieak berriz sartzaren adibidea. Ezaugarriak eta ohiturak.
- Basoko landaketak. Erabilera publikoko mendiak: espezie desberdinen ezaugarriak, haien erabilera, basoko lan nagusiak.
- Lehenengo mendizaleak: Gorbeia gurutzeta. Natura-inguruneetako kirol-ekintzak.
- Artxaintza-kultura: artxaintza transtermitantea, bordak, larreak.
- Gizakia Gorbeian: kobazuloko aztarnategiak, monumentu megalitikoak.
- Usadio eta lanbide tradizionalak: ikazkina, artxaina, karegilea, errotak, elurtegiak, burdinolak, kirikinoak.
- Arkitektura tradizionala: gune txikiak Arabako eremuan eta auzo edo baserri sakabanatuak Bizkaian.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• Parke Naturala. (1994) // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).



## IPARRALDEKO MENDIAK

### BIZKAIA B.17 Urkiola



**Historia, geografía eta paisaiaren aldetik** interes handia duen gune adierazgarri bat da. Mendi–mazela urri eta gogorretako kareharrizko haitz handien eta beheko eremuetako pagadi itxien artean alde handia dago, eta harkaitzetako eta basoetako faunaren biodibertsitatea garrantzitsua da. Fenomeno karstikoez markatzen dituzte mendi hauek: arrakalak, sakanak, amildegia eta leizeak. Ospetsuena Anboto mendiaren, Mari Anbotoko Damaren

bizilekuaren, horma bertikalean dagoena da. Gune horren izaera mitologikoa bertako mito eta kondairen ahozko tradizio aberatsean islatzen da. Ondorengo kristautze–prozesua ere toki horietan hasi zen, historiaz eta espiritualtasunez beteriko Urkiolako Santutegiak erakusten duenez. Eredu honetan ez dago hirigunerik, baina inguruko biztanleak Urkiolara joan dira mendeetan zehar artaldeak bazkatzu, zura bildu edo beren jainkoei otoitz egitera.

### LANERAKO GAIK

- Gunearen jatorri geologikoa: Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeen banalerroa.
- Paisaiaren interpretazioa: kareharrizko gailurrak, basoak, haraneko guneak.
- Urkiolako beste parkea: kobazuloak eta fenomeno karstikoak, lurpeko mundua.
- Basoko landaketak: espezieen identifikazioa, beraien erabilera, basoko lan nagusiak.
- Urkiolako landaredia: harkaitzak, zohikaztegiak, haritzia, pagadia, artadia.
- Harkaitzetako fauna. Haitzetako hegaztiak: sai arrea.
- Urkiolako ugaztunak: morfologia, ohiturak, oinatzak eta arrastoak.
- Hagina: zuhaitz sakratua, ezaugarriak, erabilerak, bitxikeriak.
- Ingurunearen gaineko eragina: harrobiak, hiriguneak, turismoa.
- Usadio tradizionalak: ikazkina, elurtegiak, artzaintza, Olaetako burdinola, Olaeta mendiko baso–trenbidea.
- Kristautze–prozesua Bizkaian.
- Durangaldeko historia eta ondarea: Atxondoko harana, Durango, Aramaio.
- Kondairak, tradizioak eta erromeriak: Mari, Etxaburuko Dorrea, Muntsarat, etab.
- Boluntario–lana naturaguneetan. “Urkiolako Lagunak”.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- Parke Naturala (1989) // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

## IPARRALDEKO MENDIAK

### BIZKAIA



### B•18 Ganekogorta mendia

**G**anekogorta mendi izugarritik Bizkaiko mendebaldeko eremu zabal bat dago ikusgai; oinaldean Bilbo eta horren eragin-eremu jendetsua daude, eta bertako biztanleentzat Ganekogortako gunea aisialdirako eta lasaialdirako eremu garrantzitsua da.

Inguru honetako jatorrizko basoak erabat aldatu dira eta, gaur egun, mendi-hegaletan, *Intsinis pinuaren* sailak dira nagusi, hostozabal autoktonoen enklabe urri batzuekin nahasirik. Aldiz, goialdean larreak zabaltzen dira, inguru honetan erabiltzen den abeltzaintza estentsibo ugariaren mantenu.

Gizakiaren ekintzak paisaia aldatu arren, gune honetan basoko inguruneari dagozkion fauna-komunitate batzuk bizi dira, eta baita oso ohikoak ez diren beste batzuk ere, adibidez, oro-muxarra, basakatua eta, salbuespen gisa, orkatz bat.



### B•19 Oiz mendia


**E**gun argitsuetan, Bizkaiko bost mendi nagusietako bat dugun Oiz mendiaren gailurretik, ia Lurralde Historiko osoa barnean hartzen duen ikuspegi paregabea begizatzen da: Durangaldeko mendien gailurrak, Gorbeia, Urdaibai eta itsasoa. Gune hori artzaintzaren kokaleku gisa garrantzitsua da historiaurretik, eta horren froga ditugu bere hegaletan sakabanatuta dauden aztarna megalitiko ugariak; izan ere, mendi-hegal horiek ia guztiz deforestatuta daude antzina-antzinatik larre-eremuak sortzeko erabilitako suaren ondorioz. Behe-sasiak eta bazkalekuak nagusi diren paisaian zenbait erreka eta enklabe heze nabaritzen dira, gure lurraldean ezohikoak diren hainbat espezierekin; esate baterako, baso-igel iberiarra eta ur-zozoa.

Eremu horren gaineko eragin nagusiak dira bere tontorra zuinkatzen duten antenak, txangozale-kopuru handia (gailurrera iristea erraza dela eta batzuk motorrean), eta dagoen parke eolikoak.



## IPARRALDEKO MENDIAK

### GIPUZKOA G.19 Aizkorri



**Mendi-zerrenda zabal honek** Autonomia Erkidegoko gailur handienak hartzen ditu barnean, eta Kantauriko eta Mediterraneoako isurialdeen banalerroa osatzen du; izan ere, ezaugarri horrek eragin nabarmena du isurialdeen paisaia. Paisaia desberdineko bi eremu ditu: erliebe uhindun eta artzain-tradizioko Urkilla-Elgeako mendilerroak, eta Aizkorri-Aratzeko erliebe zorrotzak. Eremu honek bertako basoen eredu bikain eta zabala du. Gune altuetan, ehunka urtez ardi

latxaren artzaintzaren ondorioz sortutako belardiek hartzen dute basoen tokiak. Aizkorri ondo kontserbatuta dauden habitatak fauna nabarmen baten babesba dira; izan ere, beste eremu batzuetan jada desagertutako hainbat espeziek bertan du aterpea. Eremu honek, gainera, balio handia du historia, kultura eta ondarearen aldetik, bertako ezaugarri baitira, besteak beste, San Adriango tunela eta galtzada, eta Arantzazuko Santutegia.

### LANERAKO GAIAK

- Euskal Herriko geografia: lurraldeen mugak, isurialdeen banalerroaren kontzeptua.
- Aizkorri hesi bioklimatiko gisa: bi isurialdeetako (Arabako lautada/Gipuzkoako haranak) kliman, landaredian eta giza jardueran duen eragina.
- Uraren ibilbidea mendigunean: Araia ibaiaren sorburua.
- Paisaia karstikoaren eredu bikaina: La Leze.
- Abeltzaintzak modelatutako paisaia: larre-belardiak Aizkorriin.
- Landa-industriak: Meatze-trenbideak.
- Artzain-kultura: artzaintza eta transhumantzia Aizkorriin, iraganean eta gaur egun. Arantzazuko artzain-eskola.
- Ekosistemaren gaineko eraginak: mendi-bideen eraikuntza.
- Elgeako parke eolikoa: energia berriztagarriak eta berriztaezinak.
- Europatik Donejakuera. San Adriango galtzada.
- Landaguneak Gipuzkoan: oraina eta geroa. Zeraingo Kultura Parkea.
- Historia- eta arte-ondarea: Arantzazuko monasterioa. Euskal Arte Garaikidea.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- Parke Naturala (2006) // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

## IPARRALDEKO MENDIAK

GIPUZKOA G•20

### Izarraitz



**Izarraizko mendigunetik**, Deba eta Urola ibaien arroen artean kokaturik dagoen mendigunetik, Azkoitia–Azpeitia haraneko paisaia osoa ikusten da. Erliebe handiak dituen kareharrizko azaleratze izugarri baten aurrean gaude eta bertan ekosistema ugari eta desberdinak biltzen dira: har-kaitzak, mendi-larreak, era askotako basoak, zuhaixka-eremuak, errekek eta ur-putzuak.

Gure autonomia-erkidegoan hain urriak diren ugartzu handiek elikagaiak bilatzen dituzte espazio honetan. Gaur egun gizakiaren eragin handirik jasaten ez badu ere, Ekaingo pintura bikainek frogatzen dutenez, gunehori aterpea eta ehiza-lekua izan da gizakiarentzat historiaurretik. Paleolitikoko garaiko labar-artearen altxor horrek aparteko garrantzia du mundu-mailan.

#### LANERAKO GAIAK



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK


- IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

- Izarraitzen jatorri geologikoa: karst-a, eredu karstikoa.
- Sarraskijale handiak: sai zuria.
- Harkaitzetako espezieak eta komunitateak.
- Artadi kantauriarreko flora eta fauna: baso honek lurzorua mantentzeko duen garrantzia.
- Lurpeko mundua: kobazuloak, leizeak eta iturburuak.
- Paleolitikoko artearen santutegia: Ekain.
- Ingurunearen gaineko eraginak: harrobiak, baso-sailak, gehiegizko artzaintza, lurzoru-galerak.
- Landa-kultura: herri-erromeriak mendietan.
- Kondairak: Mariren Kutxa.
- Landa-turismoa eta landaren garapena: "Izarraitz Bizirik" izeneko proiektua.



## IPARRALDEKO MENDIAK

### GIPUZKOA G.21 Ernio—Gatzume



**Mendigune zabal hau Azpeitia eta Tolosaren** artean altxatzen da, Gipuzkoaren bihotzean. Gailurretan, kareharrizko tontor deigarriak, pagoz eta haritzez osaturiko baso natural garrantzitsuak eta abere—azienda handi batek bazkatzeko erabiltzen dituen larre—belardiak txandakatzen

dira. Beheko hegaletan, baserri eta hirigune ugari daude landa—ingurune xarmangarri batean sakabanatuta.

Inguru horietan antzinako bideak, mitoak eta tradizioak biltzen dira, gure iragan hurbileko landa—identitatea eta —kultura bizirik mantenduz.

### LANERAKO GAIAK



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

- Gipuzkoako geografia: kokapena, Errezilgo harana, Bidaniako harana.
- Ernioko ekosistemak: harkaitzak, baso mistoa, zelaia eta erretenak.
- Artzain—kultura: transhumantzia Ernion, artzain—lanbidea.
- Ernio, bide—gurutzea: komunikazio—bideak, Erdi Aroko galtzadak, beste garai batzuetako bidaiariak.
- Tradizio magikoa: Ernioko erromeriak eta gurutzatzeak.
- Landa—industriak: karegileak, errotak eta burdinolak, Andazarrateko meatze—bidea.
- Gipuzkoako landa—guneak: oraina eta etorkizuna.
- Larraulgo museoa: baserriko bizimodua.



## IPARRALDEKO MENDIAK

GIPUZKOA G•22

Aralar



**Aralarko mendigunea Euskal Herriko** mendi-eremu adierazgarrietariko bat da, dituen zabalera, balio natural eta berezitasun handiko paisaiengatik; gainera, Euskadiko artzain-eremu garrantzitsuenak da.

Aralarko paisaia zelaiak eta mendiko harkaitzak nagusitzen dira gune altuetan. Beherago, basoak zabaltzen dira, besteak beste, Lizarrustiko pagadi bikaina edo Ataungo domoa estaltzen duen artadi kantauriarra. Mendiko in-

guruneen aniztasun horrek barnean hartzen ditu aparteko aberastasuna duten Atlantikoko mendietako berezko flora eta fauna, espezie garrantzitsu ugariekin.

Bertako naturak eskaintzen digun guztiaz gain, Aralar leku mitikoa da euskal kulturari; izan ere, Euskal Herriko tradizioan funtsezkoak diren errito eta kondaira anitzen sorlekua da. Horieta asko Ataunen jaiotako Jose Migel Barandiaran esker iritsi zaizkigu, hark bildu eta zabaldu baitzituen.

### LANERAKO GAIAK

- Aralarko klima. Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeen banaleroa, pantaila klimatikoa.
- Forma eta fenomeno karstikoak: erliebe nagusiak.
- Aralarko ura, ibaien ur-lasterrek, iturburuak, lurpeko urak, Lareoko urmaela, uraren erabilerak eta kontsumo arduratsua.
- Ataungo domoa: artadi kantauriarra, basoek lurzorua mantentzeko betetzen duten funtzioa.
- Baso naturalak: Lizarrusti, pagadiaren nagusitasuna.
- Gizakiaren aztarna Aralarren: monumentu megalitikoak.
- Artzaintza Aralarren: artzain-kultura, modelatutako paisaia.
- Lurzorua higidura-prozesuak, gehiegizko abeltzaintzak areagotu dituenak, pistak, jende askok erabiltzen dituen bide aldapatsuak.
- Aralarko bideak: galtzadak, Lizarrustiko basoko trenbidea.
- Mendilerroko bizimodua: egurgileak, ikazkinak eta artzainak, transhumantzia, bordak.
- Etnografia. Jose Migel Barandiaran, bizitza eta obra.
- Landa-ondarea. Ataun: baselizak, dorre-etxeak, errotak, karegileak.
- Gastronomía: Idiazabal gazta, mondejuak, mamia, zizak, taloak.
- Kondairak, festak eta erromeriak: Jentilen itzulera. Mariren kobazuloa, Jentilbaratza, San Martin Txiki, etab.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- Parke Naturala (1994) // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

## IPARRALDEKO MENDIAK

GIPUZKOA G. 23

# Araxes Ibaia



**Araxes ibaiak** pagadiak eta baso mistoek estaltzen dituzten aldapa handiko hegalen artean sartutako haran bateko paisaia modelatu du mendez mende. Ibaia izan da tradizionalki inguruko biztanleen ekonomia-euskarria: haren uren indarrak baliatzen dira landa-industria txikien motore gisa eta, gainera, bere ubidea Nafarroarekin komunikatzeko bidea zen duela gutxira arte.

Gaur egun, lasaitasuna itzuli da erriberetara eta bertan babesten dira, besteak beste, martin arrantzalea, ur-zozoa eta arriskuan dagoen bisoi europarra.




FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

### LANERAKO GAIAK

- Arro hidrografikoa: ibaien ekintzak modelatutako paisaia.
- Ibaiko ekosistema: urari loturiko flora eta fauna.
- Uren kalitatea: goiko ur-lasterraren eta beheko ur-lasterraren arteko konparaketa.
- Uraren energia aprobetxatuz: presak, erretanak eta zentral hidroelektrikoak.
- Arriskuan dagoen Euskal Herriko fauna: bisoi europarraren adibidea.
- Aisialdiko erabilerak: kirol-arrantza, arrantza-esparruak, araudia eta erabileria jasangarria.
- Arriskuan dagoen fauna suspertzea. Izokina suspertzeko programa.
- Hezeguneak eta zohikaztegiak: enklabe hauen garrantzia, flora eta fauna.
- Atlantikoko landazabala: baserria eta honen ingurunea.
- Ekosistemak jasandako eraginak: isurketak, harrobiak, kanpoko espezieak sartzea, gizakiaren presentzia.
- Garraioa: komunikazio-bideen eragina, onera etortzeko trafikoa murriztearen eragina.
- Orexako landa-gunea: historia, arkitektura eta landa-ondarea.



## IPARRALDEKO MENDIAK

### GIPUZKOA G•24 Aiako Harria



**Aiako Harrien profil bereziak** Pirinioetako Mendikatearen amaiera markatzen du. Gailurretatik paisaia ikusgarri eta anizkuna miretsi ahal izango dugu: Jaizkibel, Hondarribia, Bidasoako padurak, Txingudi, Hendaia, etab. Euskal Herriko lur zaharretan gaude; izan ere, geologiaren aldetik bereziak dira gure Erkidegoko mendigune granitiko bakarra delako. Jatorri bolkanikoko haitz-masa horren barruan metal desberdinetako zainak sortu ziren; haiek ustiatuak izan dira erromatarren

garaitik gaur arte, eta horren aztarna ugari ditugu: trenbideak, galeriak eta eraikuntzak. Higadura-prozesuek forma desberdinetako espazio bat konfiguratu dute, aldapa arrokatsu gogorrekin, baso naturalekin eta larre-eremu leunekin. Enklabe horretako fauna basokoa da batez ere, baina badira ur-inguruneetako loturikoak ere: besteak beste izokina, igaraba edo arriskuan dagoen bisoi europarra, parkeko erretan eta erreka ugarietan aterpea aurkitzen dutenak.

### LANERAKO GAIAK

- Geografia: lurraldeen mugak, Pirinioak, Kantauri Itsasoa, Iparraldea eta Hegoaldea...
- Aiako Harria hesi bioklimatiko gisa: klimaren, landarediaren eta giza jardueren gaineko eragina.
- Historia geologikoa: batolitoaren kontzeptua, haitz metamorfikoak.
- Aiako Harria migrazio-korridore gisa, uso-pasea.
- Arriskuan dagoen fauna suspertzea: izokina berriz sartzia.
- Parkeko abeltzaintza-ustiapenak.
- Historiaurreko Euskal Herria: hileta-erritoak neolitikoan. Monumentu megalitikoak.
- Inguruko erabilera tradizionalak: ikazkintza, gaztainondoaren landaketa, elurtegiak.
- Arditurri: meatzeen historia eta paisaia; aztarnak: mea-zuloak, galeriak, meatze-ahoak, etab. Arditurriko eta Irungo meatze-trenbidea.
- Historia: Aiako Harria leku estrategiko gisa. Inguruko gerren testigantzak.
- Aiako Harria eta bere ingurunea: populazio handiko eskualde baten aisialdi-eremua.
- Urmaelak: azpiegitura hidrauliko eta hidroelektrikoak, uraren erabilerak eta kontsumo arduratsua.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- Parke Naturala (1995) // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).



## IPARRALDEKO MENDIAK

### GIPUZKOA



### G•25 Udalaitz

**U**dalaitzeko piramidea hiru herrialdeen mugetan altxatzen da, Elorrio eta Arrasateren artean. Geografikoki Durangaldeko mendiei badagokie ere, Atxondoko haranak banantzen dituen, tontor berezi eta bakan baten moduan geratzen da.

Gailur arrokatsu zorrotz eta biluziaren eta tarteka pagadiekin eta larrekin nahasten den artadi kantauriar itxi batek estalitako mendi-hegalen arteko kontrastea da paisaiak duen elementurik erabakigarriena. Baso horretan, gure lurraldean oso arraroak diren mendi-florako espezie batzuk daude.

Tontor ikusgarri horrek naturaren aldetik dituen xarrei gehitzen zaie kobazuloek, aztarnategi megalitikoek, baselizek eta kondairek osatutako kultura-ondare oparoa; hain zuzen, Udalaitz Euskadiko mendi adierazgarrietariko bat izatea eragiten duena.



### G•26 Gorostiaga mendia (Satui)

**K**atalogatutako eremua Oñati eta Legazpi banantzen dituzten mendien zati bat da eta gailur—multzo leun bat osatzen du, oinaldean Urtatzako urtegia duela.

Baso trinko batek gaindegia hegalki estaltzen ditu. Baso horren orientazioak eguteretako ameztiaren eta iparraldeko laiotz—eremuko pagadi eta hariztien arteko antolamendu asimetrico tipikoa eragiten du. Gune horretan daude espezieen aldetik baritate eta aberastasun handiena duten basoak: pagadia gaztainondoarekin, haritz kandugabearekin, haltzadiarekin, urkiarekin, gurbearrekin, hurritzarekin, ahabiarekin, etab. nahasten da. Ingurunearen kontserbazio—egoera onak bertako fauna oparoa izatea ahalbidetzen du, batez ere hegazi—kopuru handiarekin.

### G•27 Adarra—Usabelartza

**E**remu honek Leitzarán eta Urumea ibaien isurialdeen arteko banalerroa hartzen du barnean. Adarra mendia, mendizaleen artean tradizio handia duena, paisaiaren aldetik lehen mailako erreferentzia da eskualdean. Aballarrek altuera txikiagoa du, baina bere tontor erdizirkularri esker erraz ezagu daiteke.

Hedadura txikiko gune horretan ingurune oso desberdinak biltzen dira: mendiko zelaia, sasiak,

pagadiak, hariztiak eta zohikatz—eremuak. Duen zabalera eta bertako espezie bikainak direla—eta, bereziki azpimarratzekoa da Usabelartzako zohikatz; interes ekologiko handiko eremu zingiratsu horretan oxigeno—gabeziak flora oso espezializatua agertzea eragiten du. Gure ibilaldietan gailurretan elikatzen diren harrapariak ikusi ahal izango ditugu eta, agian, inguruetan gero eta urriagoa den sasi—ardia, desagertzeko arriskuan dagoen ardi erdi—basati muzina, bazkatzen ikusteko aukera ere izan dezakegu. Artzain—kulturar gune honetan duen garrantzia eremu honetan biltzen diren monumentu megalitiko ugariak erakusten dute.

## IPARRALDEKO MENDIAK

### GIPUZKOA



### G•28 Karakate-Irurutzeta- -Agerre Buru

**K**arakate-Irurutzetako gailurrak eta hegoaldera, Agerre Buru aldera, duten zabalkuntza enklabe interesgarria dira naturaren aldetik. Haien balioa are handiagoa da inguru osoan biztanleria handiko gunek daudela eta komunikazio-bide garrantzitsuek eta industrialdeek inguratzen dutela kontuan hartzen badugu; beraz, lasaialdirako naturaz gozatzeko gune bat da ingurunekeo biztanleentzat.

Tontorrek abeltzaintza estentsiborako erabiltzen diren txilardiek, garo-lekuek eta larreek estaltzen dituzte. Mendi-hegaletako konifera-sailen artean pagadi-zerrenda zabal bat dago eta bertan baso-ingurune hauek berezko dituzten hegazti eta ugaztun asko daude.



### G•29 Murumendi

**G**oierriren bihotzean kokaturik dagoen Murumendiko tontor arrokatsua bere altueragatik baino bere tradizio eta mitologiagatik da aipagarriagoa. Gailurretik Goierrri, Ernio eta Aralarren ikuspegi bikainaz gozatu dugu, Txindoki dotorea ikusten dugula.

Paisaiak barnean hartzen ditu ipar-mendebaldeko hegalean aldapa ia bertikala duten tontorreko harkaitzak eta basoz estalitako lursailen artetik jaisten diren Eula eta Berostegiko erreken ibarbideak.

Zuhaitz-inguruneak era askotakoak eta aberastasun handikoak dira; horien artean haritzak, pagoak, gaztainondoak, urkiak eta haltzak ikus daitezke eta guztiek giro magikoan murgiltzen gaituzte, Mariren bizileku ugarietako bat den inuguru hori kondairez bustitzen duen giro magikoan. Bertako flora bariatate eta interes handikoa da. Kantauriko isurialdean ezagutzen den *Saxifraga losae* izeneko eskualdeko endemismoaren populazio bakarra bertan dago.




## IPARRALDEKO MENDIAK

ARABA

A.1

### Arkamoko mendilerroa



**Mendigune zabal honek** era askotako habitatak eta paisaiak eragiten dituen orografia nabarmena du. Bertako altuerak goi-lautadetako morfologia tipikoa dute, bertako abere-azienda joriak aprobetxatzen dituen larre handiekin. Kuartango aldera begiratzen duen mendilerroaren isurialdeak amildegi izugarriak ditu, Autonomia Erkidegoko artadi handienetako batek estalirik. Burgoseko lurraldeari begira

dagoena, aldiz, leunagoa eta zabalduagoa, da eta ia zehar-kaezina den pinu, arte eta pagoz osaturiko baso itxi batek estaltzen du. Baso-aberastasun horrek eta bertako klimek faunarentzako ezaugarri aproposak sortzen dituzte, bereziki hegazti harraparietzat eta basoari loturiko ugaztunentzat: besteak beste, soro-muxarra, lephoria, basakatua, orkatza eta oreina.

#### LANERAKO GAIAK

- Geologia: eredu karstikoa, erliebearen formak, kobazulo-sarea.
- Kuartangoko haizak: harkaitzekin loturiko biodibertsitatea.
- Hidrografia: akuiferoen kontzeptua, ur gezako eta ur gaziko akuiferoak, uren konposizioa, ur termalen erabilerak (Kuartangoko bainu-etxea).
- Arkamoko paisaia: Mediterraneoako basoa, ezponda naturalak, nekazaritza-laborantzak, landaredi zingiratsua.
- Artadia: flora eta fauna, usadio tradizionalak, ikazkin-lana.
- Paisaiaren interpretazioa: egutera-eremuko (artadia) eta laiotz-eremuko (pagadia) landaredi disimetrikoa.
- Arkamo-Guibijo-Garobel/Salbada korridore biologikoa: korridore biologikoen fauna mantentzeko duten garrantzia.
- Artzaintza mendilerroan: Arabako mendi-zaldia, Euskal Herriko etxe-abereen arraza autoktonoak.
- Espazioaren erabilera: ehiza- eta arrantza-barrutiak, nekazaritza.
- Artzain-kultura: monumentu megalitikoak, kokalekuak kobazuloetan.
- Landa-arkitektura eta erlijio-arkitektura: Kuartangoko kanpai-hormak.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).




## IPARRALDEKO MENDIAK

ARABA

A.2

Aizkorri



**Mendi-zerrenda zabal honek** Autonomia Erkidegoko gailur handienak hartzen ditu barnean, eta Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeen banaleroa osatzen du; izan ere, ezaugarri horrek eragin nabarmena du isurialdeen paisaia. Paisaia desberdineko bi eremu ditu: erliebe uhindun eta artzain-tradizioko Urkilla-Elgeako mendilerroak, eta Aizkorri-Aratzeko erliebe zorrotzak. Eremu honek bertako basoen eredu bikain eta zabala du. Gune altuetan, ehunka urtez ardi

latxaren artzaintzaren ondorioz sortutako belardiek hartzen dute basoen toki. Aizkorri ondo kontserbatuta dauden habitatak fauna nabarmen baten babesera dira; izan ere, beste eremu batzuetan jada desagertutako hainbat espeziek bertan du aterpea. Eremu honek, gainera, balio handia du historia, kultura eta ondarearen aldetik, bertako ezaugarri baitira, besteak beste, San Adriango tunela eta galtzada, eta Arantzazuko Santutegia.

### LANERAKO GAIK

- Euskal Herriko geografia: lurraldeen mugak, isurialdeen banaleroaren kontzeptua.
- Aizkorri hesi bioklimatiko gisa: bi isurialdeetako (Arabako lautada/Gipuzkoako haranak) kliman, landaredian eta giza jardueran duen eragina.
- Uraren ibilbidea mendigunean: Araia ibaiaren sorburua.
- Paisaia karstikoaren eredu bikaina: La Leze.
- Abeltzaintzak modelatutako paisaia: larre-belardiak Aizkorriin.
- Landa-industriak: Meatze-trenbideak.
- Milaka urteko kudeaketa: Partzuergoak.
- Artzain-kultura: artzaintza eta transhumantzia Aizkorriin, iraganean eta gaur egun. Arantzazuko artzain-eskola.
- Elgeako parke eolikoa: energia berriztagarriak eta berriztaezinak.
- Ingurunearen gaineko eraginak: mendi-bideen eraikuntza.
- Europatik Donejakuera. San Adriango galtzada.
- Historia- eta arte-ondarea: Arantzazuko monasterioa. Euskal Arte Garaikidea.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• Parke Naturala (2006) // IKT (Interes Komunitarioko Tokia).




## IPARRALDEKO MENDIAK

ARABA

A.3

### Gorbeia



**Gorbeia mendigunea** euskal geografiako gune menditsu garrantzitsuenetako bat da, eta oso adierazgarria da ekologiaren eta paisaiaren aldetik. Atlantikoko eta Mediterraneoko isurialdeen banalerroari dagokio; iparraldera sakan malkartsuak ditu eta hegoaldera, berriz, aldapa leuneko haran zabalak. Enklabe horren balio garrantzitsuen artean daude hostozabalen, harkaitzen eta kareharrizko paisaietako basoak, enklabe hezeak eta

ur-lasterrak. Fauna ere aberatsa da oso: martin arrantzalea, basurdea, arrano txikia, sai zuria, aztore arrunta, muxar grisa, lephahoria, basakatuia, igaraba, etab.; halerre, 60ko hamarkadan berriz ekarritako oreinak dira gune honetako protagonista nagusiak. Duen aberastasun naturalaz gain, Gorbeia leku sinbolikoa da bertako elezhar eta tradizioengatik, bai eta euskal mendizaletasunaren erreferentzia-puntu gisa ere.

#### LANERAKO GAIK

- Euskal Herriko Geografia: kokapena, probintzien mugak. Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeen banalerroa.
- Gorbeia paisaia: paisaia naturala eta gizakiaren ekintzek modelatutako paisaia (artxaintza).
- Saldropoko hezegunea: eremu hezeen garrantzia. Habitat baten gehiegizko ustiapena. Leheneratze-prozesuaren balorazioa.
- Itxina eta karst-a: higadurak eragindako sistema geologikoa. Biotopo Babestua (1995).
- Oreinak Gorbeian: habitat jakin batean espezieak berriz sartzaren adibidea. Ezaugarriak eta ohiturak.
- Basoko landaketak. Erabilera publikoko mendiak: espezie desberdinen ezaugarriak, haien erabilera, basoko lan nagusiak.
- Lehenengo mendizaleak: Gorbeia gurutzeta. Natura-inguruneetako kirol-ekintzak.
- Artxaintza-kultura: artxaintza transtermitantea, bordak, larreak.
- Gizakia Gorbeian: kobazuloko aztarnategiak, monumentu megalitikoak.
- Usadio eta lanbide tradizionalak: ikazkina, artxaina, karegilea, errotak, elurtegiak, burdinolak, kirikinoak.
- Arkitektura tradizionala: gune txikiak Arabako eremuan eta auzo edo baserri sakabanatuak Bizkaian.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• Parke Naturala (1994) // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).



## IPARRALDEKO MENDIAK

ARABA

A.4

### Urkiola



**Historia, geografia eta paisaiaren aldetik** interes handia duen eskualde adierazgarri bat da. Mendi—mazela urri eta gogorretako kareharrizko haitz handien eta behoko eremuetako pagadi itxien artean alde handia dago, eta harkaitzetako eta basoetako faunaren biodibertsitatea garrantzitsua da. Fenomeno karstikoez markatzen dituzte mendi hauek: arrakalak, sakanak, amildegiak eta leizeak. Ospetsuena Anboto mendiaren, Mari Anbotoko Damaren bi-

zilekuaren, horma bertikalean dagoena da. Eskualde horren izaera mitologikoa bertako mito eta kondairen ahozko tradizio aberatsean islatzen da. Ondorengo kristautze—prozesua ere toki horietan hasi zen, historiaz eta espiritualtasunez beteriko Urkiolako Santutegiak erakusten duenez. Ere honetan ez dago hirigunerik, baina eskualdeko biztanleak Urkiolara joan dira mendeetan zehar beren artaldeak bazkatu, zura bildu edo beraien jankoei otoitz egitera.

### LANERAKO GAIAK

- Eskualdearen jatorri geologikoa: Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeen banalerroa.
- Paisaiaren interpretazioa: kareharrizko gailurrak, basoak, haraneko gunek.
- Urkiolako beste parkea: kobazuloak eta fenomeno karstikoak, lurpeko mundua.
- Basoko landaketak: espezieen identifikazioa, beraien erabilera, basoko lan nagusiak.
- Urkiolako landaredia: harkaitzak, zohikaztegiak, haritzia, pagadia, artadia.
- Harkaitzetako fauna. Haitzetako hegaztiak: Sai arrea.
- Urkiolako ugaztunak: morfologia, ohiturak, oinatzak eta arrastoak.
- Hagina: zuhaitz sakratua, ezaugarriak, erabilerak, bitxikeriak.
- Espazioaren gaineko eragina: harrobiak, hiriguneak, turismoa.
- Usadio tradizionalak: ikazkina, elurtegiak, artzaintza, Olaetako burdinola, Olaeta mendiko baso—trenbidea.
- Kristautze—prozesua Bizkaian.
- Aramaioako haraneko historia eta ondarea.
- Istorioak, kondairak eta ohiturak; Santa Kruz apaiza, Mari, Barajueneko Jauna.
- Nola lagundu dezakegun: boluntario—lana naturaguneetan. "Urkiolako Lagunak".



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- Parke Naturala (1989) // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).



## HARAN SUBATLANTIKOAK

ARABA

A.5

### Bayas ibaia



**Bayas ibaia Gorbeia mendiaren** gailurrean sortzen da, Araba iparraldetik hegoaldera zeharkatzen du, probintzia Rivabellosa inguruan utzi arte eta, azkenean, Ebro ibaia isurtzen ditu urak Miranda de Ebron (Burgos). Ibaiaurren arroa gure Autonomia Erkidegoan ondoen kontserbatzen diren tatak bat da eta, beraz, lehen mailako interes ekologikoa du. Ibaiaurren goiko ur-lasterrek Zuiako harana zeharkatzen du,

pagadi, harizti eta larreez inguratutik. Erdiko ur-lasterrean, Kuartangoko harana zeharkatzen du ibilbide bihurriena, oso ondo kontserbatutako haltzadi zabalaren artean igaroz. Arrain, hegazti-fauna eta urari loturiko ugaztunen ale asko biltzen dira, Techako haizpitarte malkartsuaren bitartez, Arabako mendebaldeko eskualdeekin komunikatzen diren ur eta erribera hauetan.

### LANERAKO GAIAK

- Ibaiaurren zatiak, haranaren forma, ibilguaren ezaugarriak.
- Uren kalitatea: goiko ur-lasterrearen eta beheko ur-lasterrearen arteko konparaketa.
- Ibaiko ekosistema: urari loturiko biodibertsitatea.
- Ibaiaurrezko basoak: haltzadia, landarediak ibaiaurren egonkortasunean duen garrantzia.
- Uraren indarraren erabilera: errotak, zentral hidroelektrikoak.
- Ibaiaurren egungo erabilera: kirol-arrantza, arrantza-barrutiak, araudia eta erabilera jasangarria.
- Ekosistemaren gaineko eraginak: ubideratzeak, deforestazioa, ureztapenak, isurketak.
- Kuartangoko harana: historia, ondarea, landa-guneak, despopulazioaren arazoa.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK


- IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).



## HARAN SUBATLANTIKOAK

ARABA A.6

### Urrunagako urtegia



**Urrunagako urtegia 1957.** urtean jarri zen martxan, alde batetik, Bilbo eta Gasteizko hirigune handiak urez hornitzeko eta, bestetik, Barazarreko lurpeko urjauziaren bitartez energia elektrikoa sortzeko. Barneko hezegune

honek balio handia du urari loturiko landare- eta fauna-komunitateak mantentzeko, bereziki uretako hegaztiei beren migrazio-paseetan babeseta eta elikadura emateko gune gisa.

#### LANERAKO GAIAK

- Azpiegitura hidraulikoa: urtegiak, edateko ura banatzeko sarea.
- Uraren kudeaketa egungo gizartean: homidura, erabilerak eta gehiegizko erabilerak.
- Undurragako uharka: energia sortzea, energia kontsumitzea, energia aurreztea.
- Ur garbia eta ur zikina: uraren kalitate ekologikoa, parametroak, hondakin-mailak, kutsadura.
- Eutrofizazio-prozesua: alderdi positiboak eta negatiboak.
- Egungo landaredia eta izan daitekeena: hariztia eta ibaiertzeko landaredia.
- Uretako landaredia: landarediaren garrantzia urtegiaren erabileretan.
- Hegaztien behaketa: (morfologia, elikadura, azturak), enklabe honek hegaztien migrazioan duen garrantzia, ingurunearen harrera-ahalmena.
- Ekosistemarentzako arriskuak eta mehatxuak: aldaketak uraren mailan, kanpoko espezieen sarrera, ehiza...
- Giza jarduera inguruan: abeltzaintza, esnetarako behi-azienda.
- Usadio tradizionalak: Ollerietta, eltzegileen herria, euskal zeramikaren museoa, inguruko artisau-tradizioa.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).



## HARAN SUBATLANTIKOAK

ARABA

A-7

### Zadorra ibaija



**Zadorra ibaiak Arabako lurraldea** banatzen du, Entzia inguruko mendietako iturburutik Ebro ibaiaren aho-raino. Zadorra ibaiaren ibilguaren lehen zatiak ubideratze ugari ditu, eta nekazaritza-ustiapen askoren artetik igarotzen da. Uribarri-Ganboa urtegiaren presatzen denean lortzen du emari handiena eta, ekologiaren aldetik ere, orduan da interesgarriena. Zati batzuetan makalek eta baratzeek

haien tokia hartu duten arren, ibaiaren inguruneari loturiko landare-espezie ugari (haltzadiak, lertxundiak, lizardi-zumardiak, etab.) osaturiko basoak babesten ditu ibaiertzak. Uren kalitatea mantendu izanak fauna-komunitate aberatsa kontserbatzea ahalbidetu du; azpimarratzekoak dira, besteak beste, igaraben eta bisoi europarren populazioak, arrisku larrian baitaude.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

### LANERAKO GAIK

- Ibaiaren zatiak, haranaren forma, ibilguaren ezaugarriak.
- Uren kalitatea: goiko ur-lasterraren eta beheko ur-lasterraren arteko konparaketa.
- Ibaiko ekosistema: urari loturiko biodibertsitatea.
- Euskal Herrian arriskuan dagoen fauna: bisoi europarraren adibidea, kanpoko faunaren sarrera, bisoi amerikarra.
- Ibaiaren eta erribaren erabilerak: ureztapenak, kirol-arrantza, baso-ustiapenak.
- Ekosistemak jasandako eraginak: ubideratzeak, deforestazioa, ureztapenak, isurketak.
- Urak hartzeko arrisku handia duten guneak: ibaiko ekosistemarentzat jasangarriak diren konponbide-proposamenak.
- Kontsumoa: uraren kontsumoa egungo gizartean, kontsumoaren murrizketa, erabilerak eta gehiegizko erabilerak, Zadorra ibaiko urtegiak.
- Herri bat ibaiaren ondoan, Trasponte: historia, kultura-ondarea, ibaiari loturiko giza jarduera.

## HARAN SUBATLANTIKOAK

ARABA

A.8

Salburua



**Gasteizko lurraren azpian**, "Gasteizko kuartemarioko akuiferoa" izena duela, ur-poltsa handi bat dago. Akuifero honetako urak naturalki sortzen ziren Arabako lautadako hainbat puntutan, duela hamarkada batzuk arte, eta eremu heze handiak sortzen zituzten. Inguru horretan nekazaritza garatu zenean, enklabe horiek idortu eta drainatu ziren,

soro landu gisa ustiatzeko. Prozesu hori Salburuan ere hasi zen, baina zorionez degradazioa garaiz zuzendu ahal izan da, migrazio-hegaztientzat funtsezkoa den hezegunea bikain hori babestuz; izan ere, leku honetan animalia- eta landare-espezie ugari bizi dira eta horietako batzuk arrisku larrian daude.

### LANERAKO GAIK

- Paisaiaren osaera: hezegunearen jatorri geologikoa.
- Hezegunearen funtzionamendu hidrologikoa: akuiferoaren kontzeptua, lurpeko urak, urtaroko izatearen araberako ur-maila, ondorio biologikoak.
- Paisaiaren interpretazioa: Arabako lautada, eremu hezeak, mendilerroak, soro landuak, hirigunea, azpiegiturak.
- Urari loturiko landaredia: espezieak eta komunitateak.
- Uretako hegaztiak: behaketa zuzena (morfologia, elikadura, azturak, etab.).
- Arriskuan dagoen fauna: bisoi europarra, suspertzeko programak.
- "Gasteizko Eratzun Berdea". Barnean hartzen dituen tokiak, leheneratzeko prozesuak.
- Hezegunea leheneratzeko prozesuaren balorazioa: burututako ekintzak, emaitzak.
- Ingurunearentzako arriskuak: kanpoko espezieak sartzea, ureztatzeko ura ateratzea, laborantza intentsiboa, plagizidak, gizakiak egotea.
- Nekazaritza Arabako lautadan: labore garrantzitsuenak, nekazaritza-lanak, nekazaritzako praktika onen araudia, eskualdearentzat duen garrantzi ekonomikoa.
- Hirigintza jasangarria: hirien hazkuntza, hirigintzako plangintza (etxebizitza-beharra, gune ahulen babesa, berdeguneak).
- Gasteiz: monumentu- eta kultura-ondarea.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• RAMSAR (2002).



## HARAN SUBATLANTIKOAK

ARABA

A.9

# Uribarri–Ganboako urtegia



**Urtegi artifizial hau 1957.** urtean hasi zen funtzionatzen, Bilboko eta Gasteizko hirigune handiak urez hornitzeko. Denboraren poderioz, haren hodian lokatza eta lohia finkatu dira, eta horietan era askotako uretako fauna, negutarra,

migratzailea eta habiagilea, elikatzen duten hainbat landaredi mota garatu dira. Naturaren ikuspegitik hegoaldea da eskualderik interesgarriena; hain zuzen, Maturana, Marieta–Larrinzar eta Mendixurreko landaguneen ingurukoa.

### LANERAKO GAIAK

- Azpiegitura hidraulikoa: urtegiak, edateko ura banatzeko sarea.
- Uraren kudeaketa egungo gizartean: horniketa, erabilerak eta gehiegizko erabilerak.
- Ur garbia eta ur zikina: uraren kalitate ekologikoa, parametroak, hondakin–mailak, kutsadura.
- Eutrofizazio–prozesua: kontzeptua, alderdi positiboak eta negatiboak.
- Egungo landaredia eta izan daitekeena: hariztia eta ibaiertzeko landaredia.
- Uretako landaredia: landarediaren garrantzia urtegiaren erabileretan eta animalien biziraupenean.
- Mendixurreko Parke Ornitologikoa: hegaztien behaketa (morfologia, elikadura, azturak), enklabe honek hegaztien migrazioan duen garrantzia, ingurunearen harrera–ahalmena.
- Txikiaren garrantzia: ornogabeen komunitatea urtegian.
- Ingurunearen olgeta–erabilerak: jendetzak eragindako arazoak, ingurunearen zaintzarekin bateragarriak diren erabilerak.




FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- RAMSAR (2002, urtegiako isatsen eremua) // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

## HARAN SUBATLANTIKOAK

ARABA



### A•10 Godamo mendiko hariztia

**H**aritz kanduduna lur fresko eta hezea duten lur-eremu sakonetan bizi da batez ere, horregatik nahiago ditu haranak eta mendi-mazelak. Urkabustaizeko haraneko erliebe leunetan gune horiek uztarako zelai gisa ustiatzen dira gaur egun, baina landazabalean sakabanaturik jatorrizko hariztiaren zati asko ikus daitezke. Horien artean, Godamo mendian kokatuta dagoena garrantzitsuenetarikoa bat da, oso zabala eta zuhaitzei dagokienez aberatsa delako. A-68 autopistak mugatzen du eta, izan ere, hori da hariztiak jasaten duen eragin nagusia.

Bertan, geruza begetatibo guztiak gorde dituen baso natural batez goza dezakegu: zuhaitzi heldu bat eta lagun dituen zuhaixka eta belarkaren multzo oparoa. Ondo kontserbatutako eta basoko fauna anizkun batek bizitokitza hartutako basoen itxura nahasi tipikoa ematen diote horiek. Bertako faunaren artean azpimarratzekoak dira anfibiak, adibidez, baso-igel jauzkaria, eta basoko hegaztiak, esate baterako, okil txikia, okil handia eta mokolodia. Basotik hurbil, Izarra herrian bertan, EAeko Arbola Berezi izendatu den hagin-ale eder bat ikusteko aukera dugu.



### A•11 Atxabal, "Peñas de Oro"

**E**remu menditsu interesgarri hau Zuiako haranaren erdi-erdian kokatuta dago, Gorbeia inguruan, larrez eta landagunez inguratuturik. Haren diapiro-forma interesgarria da benetan, material konplexuek lurzoru desberdinak osatzen dituztelako eta horietan zabaleran txiki samarra den esparru batean ohikoa ez den era askotako landaredi konplexu bat finkatzen delako. Mosaiko horretan hariztien, pagadien, erkameztien, ameztien eta haizetako landarediaren eremuak txandakatzen dira, bakoitzaren beharren arabera.

Jabetzaren zati handiena antzinatik Oroko Ama Birjinaren Santutegiarena izateak, alde batetik, eta ustiapenen kudeaketa egokiak, bestetik, ahalbidetu dute era askotako zuhaitzak eta fauna aberatsa dituzten baso horiek ondo kontserbatzea.

### A•12 Zuiako haran- -hondoko hariztiak

**G**orbea inguruko udalerrri honetako haran-hondoetan sakabanatuta dauden harizti-enklabe ugari adibide adierazgarriak dira gune horretan bi harizti, hain zuzen, Arbola Bereziaren kategoriarekin bereziki babestua izan den planta ederreko alearekin batera aukeratu direnak. Haran-hondoko eremu heze eta emankorreko jatorrizko landarediaren gotorleku dira.

Gaur egun, ingurune hori batez ere landazabal atlantikoko paisaiak betetzen du, uzta-zelaiekin. Bi hariztiak Bayas ibaitik hurbil daude; alegia, inguruneari dibertsitate biologiko handiagoa ekartzen dion ibai-ardatzetik hurbil.

Haritz-zuhaitzi horiek elorri zuri, arbustu, hurriz, lahar, sahats eta abarrez osatutako oihanpe bat kontserbatzen dute, eta zuhaixken benetako nahas-mahasa sortzen. Sasitza hori are gehiago aberasten du Bayas ibaiaren ertzak estalitako haltzadi konplexuak. Hainbat inguruneren konbinazioak dibertsitate biologiko handiko enklabea sortzen du, basoko fauna eta ur-inguruneen loturikoa nahastuz.



## HARAN SUBATLANTIKOAK


### ARABA



#### A•13 Arabako lautadako harizti-uharteak

**I**zen horrek Arabako lautadako zenbait herritan sakabanatuta dauden hamalau harizti-zuhaizti txiki biltzen ditu. Enklabe horiek gune horretan iraganean nagusitzen zen zuhaitz-erako landarediaz osatutako uharteak dira. Gaur egun lekuko hutsak izatera mugatzen dira, nekazaritza intentsiboak zereal, patata eta erremolatxa—labore zabalekin paisaia eragindako aldaketaren ondorioz. Haran—hondoetan edo goragune txikietan agertzen dira, garatzeko behar duten hezetasunaz hornitzen dituen erreka edo erreasto batek zeharkatuta, eta, besteak beste, zuhaixka, sahats eta elorri zuriz osatutako oihanpea egoera on samarrean mantentzen dute, gune horiek babesten dituen arantzadi itxi bat eratuz.

Toki horiek funtsezkotzat jotzen dira laborantza intentsiboaz inguratuta dagoen basoko eta honen inguruko berezko faunaren biziraupenerako. Enklabe horretan, gainera, hurbileko ureztapen—urmael artifizialak sartu dira, ezaugarri onak baitituzte ur—inguruneari loturiko espezieak hartzeko.



#### A•14 Aldaiako mendiak

**A**rea menditsu horrek Barrundiako eskualde Arabako lautadako gainerakoetatik banantzen du, eta bi alderdien artean hesi orografiko txiki bat osatzen. Bertako altuera nagusia Aldaia mendiaren tontorra da (789 m.), Elgea eta Urkilla mendilerroak, Uribarri—Ganboako urtegia eta, urrutirago, Gasteiz eta Entziako mendiak ikusteko behatoki natural paregabea, hain zuzen.

Esparru horrek erliebe korapilatsua du. Alde batetik, batez ere erkametzen eta arteen eremu zabalez estalitako mendi—hegal gogorrek ditu eta, bestetik, ardi latxen artaldeek bazkatzeko erabiltzen dituzten larre eta sasiz osatutako eremuak. Basoetan inguruan ehizan ibiltzen diren hegazti harrapariak eta basoko animalia ugari babesten dira.




## TRANSIZIOKO HARAN GARAIK ETA MENDIAK

ARABA

A.15

### Omecillo ibaia



**Omecillo ibaia Arabako** mendebaldeko muturrean jaiotzen da, eta lehen zatia Bobedako haranaren ardatz nagusia da. Baso naturalez estalitako haran hori erromesek, mandazainek eta gatz-meatzariek igarotzen zuten antzina—antzinatik. Ibaiaren ubidea pixkanaka handituz doa eta haren erriberak aberastu egiten dira, ibaiertzeko baso itxi bat sortzen duelako. Ia inor bizi ez den gune lasai horretako ur garbiek bertan uretako

fauna ugari izatea ahalbidetzen dute: esate baterako, amuarraina, ezkailua, uhandre palmatua edo suge gorbataduna. Landarediak babesturik, ur—zozoa eta urretxoria elikagaiak bilatzen ahalegintzen dira. Ibarra arian—arian zabalduta egiten da Espejorako antzinako erromatar bidearen ondotik; hemen zubi eder batek gurutzatzen du azken zatian urak isurtzera Ebrorantz bideratutako Omecillo ibaia.

#### LANERAKO GAIK

- Ibaiaren zatiak, haranaren forma, ibilguaren ezaugarriak.
- Uren kalitatea: goiko ur—lasterraren eta beheko ur—lasterraren arteko konparaketa.
- Ibaiko ekosistema: urari loturiko biodibertsitatea.
- Ibaiko arrainak: espezieak, morfologia, elikadura, azturak.
- Euskal Herrian arriskuan dagoen fauna: bisoi europarra.
- Ibaiertzeko basoa: espezie eta komunitate bereizgarriak.
- Ibaiaren eta bere erriberen erabilerak: arrantza—barrutiak.
- Gizakiaren jarduerak inguruan: baso—ustiapenak, abeltzaintza estentsiboa.
- Komunikazio—bideak: erromatar galtzada, Donejakue bidea, gatz—meatzeen ibilbideak.
- Monumentu—ondarea: Varonatarren Dorre—Jauregia eta kondaira.
- Ibaiaentzako arriskuak: kutsadura, deforestazioa, isurketak, etab.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).



## TRANSIZIOKO HARAN GARAIAK ETA MENDIAK

ARABA

A.16

### Garobel/Salbada mendilerroa



**Garobel/Salbadako gailurrek** Araba, Bizkaia eta Burgosen arteko muga naturala osatzen dute, eta antzina funtzio garrantzitsua bete zuten Kantauri itsasoaren eta Gaztelako mesetaren arteko komunikazio-bide gisa.

Mendigune ikusgarri horretako gailurrek larrez beteriko goi-ordoki handi bat osatzen dute; haren gainean hegazti harrapariek hegan egiten dute eta zakarki erortzen

da ibarretarantz, kareharrizko hormatzar handiak eratuz. Mendi-hegaletan arbolez estalitako azalera handiak eta Nerbioi ibaiaren urjauzi ikusgarria, ia 300 metroko altuera duena, dira gune horretako enklabe aipagarrietako batzuk. Gune horrek, gainera, ondare historiko eta monumental garrantzitsua gehitzen die naturaren eta paisaiaren aldetik dituen balioei.

#### LANERAKO GAIK

- Geografia: kokapena, Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeen banalerroa.
- Higadura berezi bat: "aldapako" erliebea.
- Ekosistema menditarrak: habitat-dibertsitatea.
- Ebakietako fauna: harkaitzetako hegaztien komunitatea.
- Landare-paisaia: baso garatuak, sasiak, haitzei loturiko landaredia.
- Baso-ustiapen tradizionalak: egur-zozketak.
- Haran-hondoa: landazabal atlantikoa, baserria eta haren ingurunea.
- Artzain-kultura: ardi latxaren eta terreina arrazaren artzaintza tradizionala. Arraza autoktonoek abeltzaintza estentsiboan betetzen duten funtzioa.
- Otsoaren arazoa: eragindako kalteak, izan daitezkeen irtenbideak.
- Antzinako bideak: Gaztelarako pasabidea.
- Artziniegako artea. Arbola Berezia: arbola adierazgarri horren ezaugarriak, historia eta kondaira.
- Ondarea: Artziniega eta Quejanako monumentu-multzoak.




FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- HBGB (Hegazti Babeserako Gune Berezia).

## TRANSIZIOKO HARAN GARAIAK ETA MENDIAK

ARABA A.17 Izki



**Bertan hirigunerik ia ez egoteak** eta komunika-  
zio-bide handietatik urrun egoteak eragin du gune hori  
egoera ia naturalean mantentzea, aldaketa handirik gabe  
jarraitzea. Izkiko bi heren hostozabalen basoek, batez ere  
ameztiek, betetzen dituzte, Europan dagoen harizti-mota  
horretako eremu garrantzitsuenetariko bat eta ondoen

zainduenetariko bat osatuz. Hain ondo kontserbatu iza-  
nak eta bertako habitat anizkunek bertan fauna bikaina  
bititza ahalbidetu dute. Parkearen barruan kokaturiko  
hirigune bakarra Korres da. Haizpitarte ikusgarri batean  
kokaturiko herri horrek Erdi Aroko diseinua gordetzen du,  
neurri batean

### LANERAKO GAIAK

- Izki ibaia: ibaia modelatutako paisaia. (haizpitarteak, sakanak).
- Ibaizteko flora eta fauna: haltzadia eta baso mistoa, urkidia. Arrain-komunitatea.
- Izkiko basoa: ameztia, pagadia, artadia. Espezieen identifikazioa.
- Ameztia: ezaugarri ekologikoak. Flora-osaera. Horri loturiko fauna.
- Zuhaixka-formako egiturak: ipuruaren eta ezpelaren garrantzi ekologikoa eta gune horretan dituzten erabilera tradizionalak.
- Arbola Bereziak. Antoñanako Hagina eta Ezkia: ekologia, erabilerak, bitxikeriak.
- Ekosistemarentzako arriskuak: basoko suteak. Erretako eremuen berriztapena: izan daitekeen landarearen leheneratze-faseak.
- Usadio tradizionalak: artzaintza, baso-ustiapenak (herri-basoak, egur-azalera).
- Garapen jasangarriaren adibide bat: txilarra eta eztia (ezti-produkzioa Antoñanako erle-zentroan).
- Etnografia: irin-errotak, Pipaoneko etnografia-museoa.
- Korres: Erdi Aroko herria: historia, hiri-egitura. Erdi Aroko beste herri batzuk.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• Parke Naturala. (1998) // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).



## TRANSIZIOKO HARAN GARAIAK ETA MENDIAK

ARABA

A.18

Entzia



**Entziako mendilerroa Nafarroan dagoen** Urbasako mendilerroaren luzapen geologiko, geografiko eta biologikoa da eta Iturrieta eta Entziako partzuegoen gune nagusia hartzen du barnean: zakarki, zintzur izugarrietan, Arabako lautadarantz eta Aranako haranerantz jaisten den goi-ordoki zabala. Ereku horretan aspaldikoa den artzain-tradizioak bertako paisaia modelatu du, eta

goi-ordokian larre-eremu handiak sortu; mendi-hegalak, aldiz, pagadi zabalek estaltzen dituzte eta gure Erkidegoko fauna-komunitate garrantzitsuenetariko bat bizi da bertan. Enklabe horretako paisaia ikusgarrietako bat sakonera handiko Igoingo sakana da, Iturrieta mendietako kareharrizko egitura Musitu errekek mendez mende zulatua duena.

### LANERAKO GAIK

- Mendilerroaren jatorri geologikoa: Karst-a eta paisaia karstikoa, Entziako akuiferoa.
- Inguruneen dibersitatea mendilerroan: basoak, sasiak, larreak, harkaitzak.
- Pagadia. Hedadura. Antolamendua (goi-mendia eta behe-mendia). Erabilera tradizionalak.
- El Raso (larrea): Gizakiaren ekintzen eraginez aldatutako paisaia, abeltzaintza estentsiboa (behorrak, behiak eta ardi latxa), Jatorrizko Izendapena duen Idiazabal gazta.
- Igoingo sakana: paisaiaren interpretazioa. Laiotz-eremuko (pagadia) eta egutera-eremuko (erkameztia) landaredi disimetrikoa.
- Santa Teodosia: baseliza eta galtzada, Santa Teodosiako lizarrak (Arbola Berezia), espezie horren inguruko usadioak eta sinismena artzain-kulturan.
- Basoen ustiapen jasangarriak: Partzuegoen adibideak.
- Usadio tradizionalak: Igoingo errota.
- Elementu arkeologikoak: artzain-kultura eta monumentu megalitikoak, Sorginetzeko dolmena.
- Herri-kultura: "Mayo" delako erritua San Vicenten, jatorria eta funtsa.




FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- Parke Naturala izendatzeko izapidea bideratuta dago.
- IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

## TRANSIZIOKO HARAN GARAIAK ETA MENDIAK

### ARABA



#### A•19 Bovedako mendilerroa

**B**obedako mendilerroko eta Carria Haitzeko gainak Bobedako haranaren eta Valderejoko Parke Naturalaren arteko muga naturala dira. Erliebe malkartsuko gaindegi batek mendilerro honi buru eman eta Carriako Haitz arrokatsu izugarria eratzen du. Bertako amildegi ikaragarrietan harkaitzetako hegaztiak egiten dute habia eta Omecillo ibaian, haraneko ibai-ardatzean, bat egiten duten erreka ugariak zeharkatzen dituzte Haitzeko sakan handiak.

Kareharrizko haizpitarteen ondoren basoak datoz: gizakiaren esku-hartzeak pinu gorri autoktonoaren garapena ahalbidetu du; zuhaitz-mota horrek hostozabalek (pagadiak, erkameziak, artadiak) baino etekin handiagoa ematen dute basoan. Halere, hostozabalen baso batzuk kontserbatzen dira tarteka larre-eremuen artean. Horien adibide on bat dugu Quintanillako erkamezi-artadi larretua, ehun urtetik gorako ale bikainak biltzen dituena. Haran-hondoko landa-guneetan nekazaritza-laboretako eremuak daude.



#### A•20 Tuyoko mendilerroa

**T**uyoko mendilerroa Gasteizko mendien mendebaldeko jarraipen naturala da. Altuera txikiko mendi-kate batek osatzen du eta bertako tontor altuena San Vitores (892 m.) da. Mendilerroak harkaitz-lerro txiki bat mugatzen duten baso naturalez beteriko eremu handi bat hartzen du; harkaitz horietatik handik hurbil dauden Badaia, Turiso eta Arkamoko mendilerroen eta inguruko nekazaritza-laboreen ikuspegi zabalaz goza daiteke.

Mendi hauetan ura eta larreak eskasak direnez, zaila da abeltzaintzarako aprobetxatzea eta, ondorioz, inguruko erabilera nagusiak baso-ustiapenetara eta pinudi batzuetara mugatzen dira.

Enklabe honetako faunaren bereizgarri nagusia bertako hegazti harraparien populazioak dira: hontz handiak, sai zuriak, belatz handiak, arrano sugezaleak eta arrano txikiak gune hori aukeratzen dute ehizan aritzeko.

#### A•21 Raso mendia— —Angostoko haizpitartea

**R**aso menditik, Arkamo eta Arcenako mendilerroen artean kokaturik dagoen mendi-eremutik, Gaubeako harana ikusten da, nekazaritza- eta basozaintza-ekonomian oinarritutako zenbait landagune dituen mendi-nekazaritzako eremu tipikoa. Esparru honetako elementu orografiko erabakigarriena maldan ebakitako erliebea da. Horrek

sakana estu oso ederrak sortzen ditu; esate baterako, Angostoko haizpitartea eta San Martingo sakana.

Lurraldea ia guztiz estaltzen duten pinu gorrien eta hostozabalen baso handiak eta mendian bizi den era askotako fauna dira eremu honek dituen beste elementu erakargarri batzuk. Bisitari ugari izaten ditu, batez ere Angostoko Santutegi simbolikoaren inguruan. Horren ondoan dago gaur egun Arbola Bereiziaren kategoriarekin babestutako Zin Egiteko Artea, Gaubeako Zaldunek Batzarrak egiteko aukeratu zuten tokia.



## TRANTSIZIOKO HARAN GARAIAK ETA MENDIAK

### ARABA



### A•22 Badaiako eta Arratoko mendilerroak

**B**adaiko eta Arratoko mendilerroak paisaiaren eta geografaren aldetik funtsezko erreferentziak dira Zuiako haran, Kuartango, eta Arabako lautadarentzat; izan ere, bien artean kokatuta dago, alderantzikatutako "L" baten forma hartuz. Techako haizpitarteko pasabide natural izugarriak banatzen ditu bi formazioak.

Badaiko mendilerroaren goialdea historiaurretik toki horietan bazkatzen den abere—azienda ugariak modelatutako larre zabalez osaturiko goi—ordoki bat da. Mendilerroaren mendi—hegalak beherantz doaz erliebe gogorrek eratuz, eta baso itxiek estalita. Baso hauek funtsean artadiak dira, baina laiotzetan badira erkameztiz eta pagadiz osatutako eremu zabalak ere. Floraren eta faunaren aldetik aberastasun handiena duen enklabea Techako haizpitartean dago, Bayas ibaiaren pasabidean; izan ere, hango malkar eta haitzetan arrain, anfibio eta uretako eta haitzetako hegaztien komunitate anizkuna dago.



### A•23 Pradoko sakana

**P**radoko erreka hondeatutako sakan estu hau Toloño—Kantabriako mendilerroaren ingurutako mendietan dago.

Mendi—hegaletako landaredia jatorrizkoa bezala kontserbatzen da ia, pagadiz eta erkameztiz osatutako hedadura zabalekin.

Toki eder hau oso interesgarria da, gainera, historiaren eta ondarearen aldetik: sakanaren sarrerako terraza arrokatsuetan kobazulo artifizialen multzo paregabe bat kontserbatzen da. Leizeak inguru horretako biztanleek egin zituzten Erdi Aroan (V—VI. mendeak), etxebizitza edo gurtza—toki gisa erabiltzeko. Batzuetan, garai hartako hilobi antropomorfo batzuk gordetzen dira eta kobazulo handienean "Virgen de la Peña" deituriko basiliza, ustez Euskal Herriko kristau—eliza zaharrena, kokatuta dago.

### A•24 Gasteizko Mendebaldeko mendiak

**E**remu honek Gasteizko mendien mendebaldeko alderdia hartzen du barnean. Altuera ertaineko mendi—kate hau Arabako lurraldearen erdian dago eta iparraldeko haize hezek lurraldea zeharkatzean aurkitzen duten bigarren oztopoa dira. Horrek landarediaren antolaketa asimetrikoa izatea eragiten du: iparraldera begira dauden mendi—

hegalak hezeagoak dira, eta bertan nagusi dira erkameta eta haritza; hegoaldeko mendi—mazelan, aldiz, artadiak nagusitzen dira. Antolaketa honek eragina du inguruko faunaren banaketan eta eraketan, Mediterraneoeko eta Atlantikoko espezieak elkarrekin bizitzea ahalbidetzen baitu, eta horrela faunaren dibertsitatea areagotzen.

Hiriburua hurbil dagoen arren eta ingurumenak intentsitate aldakorreko eraginak jasaten dituen arren, enklabe honetako baso—eremu zabalak eta inguruneak ondo kontserbatu dira. Ekologiaren aldetik bereziki interesgarriak dira apo pintatu iberiarra eta antzeko espezieen bizitoki diren Zaldiaran mendiko hezegune eta luperia txikiak.

## TRANSIZIOKO HARAN GARAIAK ETA MENDIAK

### ARABA



#### A•25 Jaundel mendiko eremua

**G**une honek Toloño–Kantabria mendilerroaren inguruetako eremu menditsu zabal bat barnean hartzen du eta puntu altuena Jaundel mendian du (1.035 m). Kareharrizko amilburuetako espezie ugari duen (hurritzak, gurbea, astigarra eihar italiarra, etab.) tontor arrokatsu eta estutik arian–arian haranerantz jaisten den baso itxia ikus dezakegu. Mendi–hegaletako lurzoru harritsuak baso honetan ezpela ugaria izatea eragiten du, ea ia zeharkaezina den kolore berde distiratsuko geruza sortzen. Hareatsuagoak diren lurzoruetan maiz topatzen dira pagadiak eta erkameztiak. Merez du, halaber, Navarreteko eta Lagraneko inguruetako ehun urtetik gorako gaztainondoak ezagutzea.

Inguru honetako biztanleek tentuz erabili dituzte mendiko baliabideak eta, horrela, habitat–kopuru handi bat babesten lagundu dute; horrekin batera, ezpelak estaltzen dituen gune batzuetara iristea oso zaila denez, animalia–komunitate oso interesgarria mantendu da bertan. Gune hau, gainera, Arabako hainbat enklabe naturalen arteko korridore biologikoa da, hau da, eskualdeko faunaren artean harremanak izatea eta elkar aberastea ahalbidetzen du.



#### A•26 Olandinako urmaela

**A**rabako Mendietako inguru ezezagunetariko bat da. Nagusiki nekazaritzan eta abeltzaintzan aritzen den gune honetako giza jarduera tradizionalki guztiz bateragarria izan da ingurunearekin.

Landutako soroen artean galdurik, hektarea bateko azalera besterik ez duen hezegune honek balio ekologiko handia du. Inguratzen duen baso–zerrenda mehean lizar, astigar eta haritzen ale interesgarriak ditugu, zuhaixka trinkoen eta landare igokariaren artean nahasirik. Zingirako landarediak ia guztiz ezkututzen du urmaeleko gainazala, hainbat anfibio eta hegaztiri aterpea eskainiz. Ur–lamina estuan agian igebelar zuria ikus dezakegu, Erkidego osoan hau baita espezie hori naturalki dagoen toki bakarra.

#### A•27 Gasteizko Ekialdeko mendiak

**G**asteizko mendiek osatutako hesi orografikoak Arabako lurraldea ekialdetik mendebaldera banatzen du, eta Arabako lautada hegoaldeko mugatzen. Mendien ekialdeko alderdiak gailur, sakan eta ibarbidetako anitzeko erliebe nabarmenez osatutako eremu zabala hartzen du. Horiek guztiek gizakiak ia ukitu ez duen edertasun

handiko paisaia eratzen dute, nagusiki abeltzaintzan aritzen diren eskualdeko landagune urriek biztanle oso gutxi baitituzte.

Eremu honetako habitatak ugariak dira: hostozabalen baso zabalak, sasi–eremu handiak, besteak beste Ayuda ibaiak eragindako sakan ikusgarrietan zehar igarotzen diren ur gardenetako errekek eta enklabe arrokatsu aipagarriak. Enklabe horien zabalera eta jarraipena, gizakiaren eragin txikiarekin batera, bertan bizi diren espezie–kopuru handiak islatzen du; horien artean azpimarratzekoak dira harrapari ugariak.



## TRANSIZIOKO HARAN GARAIAK ETA MENDIAK

### ARABA



A•28 Arboro mendia

**A**rboro mendiko maldan ebakitako erliebeek Arraiako eta Sabandoko haranak banatzen dituzte, Entziako mendilerroaren inguruetatik hurbil, baso eta mendiz osaturiko paisaia zabalean gailenduz. Ia lautada bilakaturako kareharrizko tontorretik mendi-hegalek aldapa gogorra osatzen dute, hostozabalen basoek guztiz estaltzen dituzten sakan eta malkar handiak sortuz.

Lur- eta intsolazio-moten arabera hainbat eremu aurkituko ditugu: artzaintza gehien dagoen guneean bazkalekuak osatzen dituzten erkameztiak, kareharrizko mendi-hegaletan pagadiak, lur-eremu hareatsuenetan ameztiak, mendi-hegal eguzkitsuetan artadiak eta zuhaitzik gabeko mendi-mazeletan hainbat zuhaixka-komunitate. Ingurune-aniztasun horrek fauna-komunitate garrantzitsu bat izatea eragiten du, bereziki baso-inguruneei loturik dagoena: zapelatz arrunta, okil handia, katajineta, basakatua, etab.



A•29 Hornillo Mendia

**H**ornillo mendiaren goragune txikia Oteoren eta Erdi Aroko Antoñana herri ederraren artean altxatzen da Arabako Mendietan, gure lurraldean ondoen kontserbatutako eskualdeetako batean.

Erliebe malkartsu eta arrokatuak, batez ere hegoaldeko magalean, eta bertako aldapetan ezpelekin korapilatzen den artadi trinkoak itxura itxia eta helezina ematen diote toki honi; hori dela eta, habitat paregabea da arroketako hegazti-espezie batzuentzat. Basoa behealdean bakarrik zabaltzen da, eta han, antzinako Pierolako San Julian komentuari hondakinen inguruan, erkameztiak eta larre-eremuak zabaltzen dira.



## HARAN SUBMEDITERRANEOAK

ARABA

A-30

### Arreo-Caicedo Yusoko lakua



